


JAUNGOIKO



ZALE

EUZKELDUNEI EUZKERAZ



V'urtia
Amabosteunerokoa

Zornotza 1917 g. Urtarila 1.ⁿ

65'g zenbakija
Arpidea lauerleko bi

URTE BARRI

Gaur sartzten da JAUNGOIKO-ZALE bere seigarren urtian. Ez da, ba, onez-keroko oyaleko umia; kaskondu da; ta Jaunari eskerrak osasunduna ta indartsua dator.

Jayo zanian, arpegi tximurdun atsoak asi ziran uluka, au zana ta ori ixango zana..., ta bildur giñian begiz-koia egingo ete-eutsen; baña laster bildurra jaurti geban, ikusirik egunerik egunera gurijago ta marduago zala, ta urtebatetik bestera gorakada andija egiten ebalá.

Igaro dan urtian egin dauna ezta makala. Orri bidun asi eban urtia; baña bost illabete baño lenago lau orrigaz agertu yakun, eta alan jarraitzen dau, gero ta sendoago. Ta, jakifia, azijago ta apainduri-zaliago, or ikusi dozue noizipein irudi ta bitxi ederrakaz jantzita.

Orain asten dogun urtiak ¿zer ete dakartso gure izparringi ta bazkuna-

ri? Gure egikizunak andijak dira: irakurgeti, idazti ta izparringiak alik geyen egin eta zabaldu; kistar irakas-kintzia erri gustijetan lagundu, onetarako ikastolak ipinita, umiak eta irakaslak sarituta.

Etzenkijan, noski irakurle orrek, gure asmoak ain zabalak diranik. Geyen be izparringi au amabostero, ta noizik noizera idaztiño batzuk argitalduaz, gure egikizunak ondo beteta egozala uste zenduan. Oker zagoz; gure asmoetatik bat, geyen ardurtzen gaituana, *euzkel ikastolak erri askotan ipintia da.*

¿Asi dogun urte barrijan olakorik egingo ete dogu? Dana dala, Jaunaren eskuetan jarri gaitezán, eta Berak dagike geuk geurez ezin doguna.

Gero laguntzaleak billatu daiguzán; laguntzale gitxi, aurrerapen gitxi dagikegu; laguntzale askok aurrerapen andija eragingo dauzkue.

Egin dogunik ez geban egingo, laguntzaleak, bazkideak ugaritu ez pa-

Jauparien Asperkundera (1)

(J A Z O K U N A)

France'ko matxinada aldian zan. Ainbat jaupari erail ebazan gizon gaizto bat gexorik gaizki yarri zan. Ziñ egin eban ezala sartuko bere etxean jauparirik, ta ¡sartuko zanen errukarri! Gexoa egunerik egunera txartuez yoyan. Bera ondo ezagututen eban jaupari batek yakin ebanian, erabagi eban, naita bizitza gatxorian (arriskuan) ipiñi, gixajoa bide onera ekarteko alegin egitea; ta egun baten gexoaren gelan otoz-otoan sartu zan. Gexoak, ikusi ebaneko, asarre-
asarre deadarka asi zan:

—¡Zer da aul ¿Jauparia (abadea) neure etxean? ¡ekarri egidazuez neure iskilluok!

Iñok yaramonik ezeutsola egiten ikusi ebanian, bere beso zantsua jaupariari erakutsita esan eutson. ¿Ikusten dok? ¿ikusten dok beso au? Yakin eik, ba, len be amabi jaupari erail dituala.

—Eztiñozu egia-erantzun eutson jaupariak-etziran izan amabi, amaika baño zuk eraildako jaupariak, amabigarrena etzan il; zeure aurrean daukuzuna da. Ikusi egizus-jarraitu ebanbularra erakutsita ara emen zeuk egin zeunstazan zauriak. Jaunak neure gorputzeko bizitza zaindu gura izan eban, zeuri arimako bizitza emotearren.

Ta au ezanaz, besartetu, bere mal koagaz busti, laztandu, lagundu eutson eriotza on bat egiten, ta zeruko ateak idigi eutsozan.

¡Auxe da jauparien asperkundera!

GAMA.

JAUNGOIKO ZALE

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

VI'urtia
Amabosteunerokoa

Zorrotza 1917 g. Urtarila 15.ⁿ

66'g zenbakija
Arpidea lauerleko bi

Erregen osteko irugarren igande-ko Goizparkia (Ebanjeliua)

Aldi atan: Jatsirik Jesus menditik jarraitu eutson aldriak, eta aor, usteleridunak (leprosua), etorririk, gurtuten eban, iñuala: Jauna, gura ba'dozu osatu naikezu. Eta Jesus'ek, besua luzaturik, ukutu eutson, esanik: gura dot; osatu zaitez. Otsian, bere usteleria iges zan. Eta diñotso Jesus'ek: Ara, ez esan iñori: Zuaz, agertu zakioz elizkizonari ta, arekazko agintzat, Moises'ek aginduriko oparia eskiñi. Kaparnaun'en sartu zanian eldu yakon euntaria arrena, ta diñotso: Jauna, ene mutikua oyan dago uetuta miñez: Diñotso Jesus'ek: juango naz ta osatuko dot. Eta euntariak erantzunik diñotso: Jauna, enaiz duin ene etxepian sartu zaitez; esan egizu itzez bakarrik, eta nire mutikua osatuko da. Neu be aginpideduna naz, gudariak, soldauak, menpian dauko-

dazana, ta diñotzat aoni: zuaz; eta dua; ta aorri: zatoz, eta dator; eta neure otseñai: egik au, ta egiten dau. Jesus, aoneik entzunik, miraritu zan, eta jarrallei diñotse: Bene-benetan dirautzubet, eztodala idoro Israel'en edu onetako ziñestasunik. Dirautzubet, asko sortalde ta sartaldetik etorri ta atsedenduko dirala Abran, Ixak eta Jakob'egaz zeruko bakalterrian; bakalterriko semiak, barriz, jaurtiko ditube atako edo kanpoko illunetara: an ixango da ulua ta agin-kurriskadia. Jesus'ek diñotso Euntaria'ri: Zuaz, ta ziñestu dozun lez gertau dakizula. Eta mutikua osatu zan ordu aretantxe.

* * *

Ziñestasuna makaldu, urritu ta ezabatuz edo borrauaz dua gizartian. Euzkelerria'n be eztago dirudian eta diñuen eduko zinestasunik, zoritxarrez. Baña, ziñestasuna da Erliñño ta gurezganetiko gauzen ondope edo zimentuba ¡Oh ziñestasun ederra; Je-

EGUROLA'ren joskintza-LEKEITIO'n

Abade nai edozeñentzako janzkijak

Ondo ta merke

Gernika'n egoten da ilen lenengo astelene-
etan Nuñez'en ostatuan.

Bilbao'n azkenengo asteleneetan «Estrella»
ostatuan.



VI'urtia
Amabosterokoa

Zornotza 1917 g. Otsala 4.ⁿ

67'g. zenbakija
Arpidea lauerleko bi

Septuagesima (aratuste aste bi aurreko) Ebanjelua

Goiz-goizetik bere mastira langilliak eruateko urten zan gizonaren antzekua da zeruko Bakalterria. Egune-ko *denario* bat (amarreko ziderra) emoteko egiuniaz bidaldu ebazan langilliak bere mastira. Urtenik barriro bederatziak inguruan, idoro ebazan batzuk plazan alperkerian, eta diñotse: Zoaze zuek be neure mastira, ta itxuran emongo yatzube. Areik, barriz, juan ziran. Barriro urten zan amabiek eta irurek samarran, eta beste orrenbeste egin eban. Urten zan illuntzaldian eta idoro ebazan beste batzuk egoten, eta diñotse: ¿zetan zagoze egun osuan alperkerian? Erantzuten dautsoe: Iñok ez gaitu alogadu-ta. Diñotse: Zoakeze zuek be neure mastira. Gaberuntz masti-ugazabak diñotso bere ornikari edo mayordomuari: Deitu langilliak eta emon alo-

gera azkenenguekandik asita lenengueneraño. Illuntzaldian, beluen lanera juan ziranak etorririk, artu eben bakotxak amarreko ziderra. Lenen lanera juanikuak etorririk, uste eben aloger andiagua artuko ebela; baña areik be bakotxak amarreko ziderra artu eben. Eta artutian ugazabaren kaltez mor morka egozan, iñuela: oneik azkenenguok ordu bete baño ez-tabe lanian egin, eta egun gustiko neke ta berua artu dogunok areikaz bardindu gozuz. Eta euretaiko bati diñotso ugazabak: aizkidia, etzaitut ezetan iraindu ¿amarreko zider-aloger-egiunia ez dozu neugaz egin ala? Artu zeuria ta zuaz; azkenengo onei zeuri beste emon gura dautsot. ¿Ez al neike egin gura dodana? ¿Ni ona nazalako zeure begia dongia ixango da? Olantxerik ixango dira; azkenenguak lenen, eta lenenguak azken. Deituak asko dira, baña autuak edo esleiduak gitxi.

—Miren-zaletasuna zorian betikorra geureganatzeko bide eskierra zete da?

—Miren-zaletasuna zeruko-biderik eskierrena (zegurua) da.

—¿Gotzonak omengarri ete dira?

—Gotzonak omengarri dira. Gogo utsak, aragi ta azurrik ez dabe. Jakintsuak, altsuak, Jainko-maitasunez irazekiak, eskartsuak, eder-ederrak. Irazaki (criatura) gustietatik Jainkoa' ren antzik geyen daukelako, Idazti Deunian (Escrituran) *Jainkod'ren semiak deritxoe*.

—¿Zer dagie gotzonak?

—Gotzonak Jainkoa goretsi ta gizonak zaindu dagier. Gotzonak zortezazten dauskuez gogo ta asmakizun onak. Eurak aurkesten dautsoez Jauna'ri gure otoi ta irabaskunak. Euren babesian gagoz. Gaitz-zori gústietatik zaintzen gaitue, beñola Lot, Judit, Kepa (Pedro) deuna bezela.

—Gizon bakoitzak bere gotzon zaintzallia zete dau?

—Olantxe irakasten dausku Eleizak. Gure lagunik zintzoena, iñoiz itxiten ez gauzan gure aizkide bakarra, gotzon zaintzallia da.

GURUTZ.

Ona izateak dakarren aintza
bijotz andijak bakarrik ezagutzen dabe.

E D E S K I A

Kircher Anastasi ortziztietan (astronomian) jakitun ospetsua, ta kistar ona zan. Aizkide bat eukan Jaungoiko'agan zinisten ez-ebana. Kircher'ek argibide onakaz ageftu gura eutson Jaungoiko bat bai zala, ta orretarako bere aginduz egin eutsien ludi-munduaren irudi eder bat, eta ipiñi eban bere ikas-gelan. Egun

batzuk barru bere aizkidea ikertaldi bat egitera etorri yakon. Mai ganean ain ludi-irudi ederra ikusi ebanian itandu eutson. «Ludi-irudi eder ori» ¿nondik zuzendu dozu? ¿Gutziz aldintsua (1) da! —¿Irudi au? —erantzun eutson jakitunak, —berez egin da zu oraintzungo egon ziñian ezker. —Aizkidea barreka azi zan. jakitunak ixekaz (burlas) itz egiten eutsolakoa. Orduan jakitunak ben-ben ezan eutson. —Aizkide; entzun egidazu. ¿Gauza errezagoa da ludiaren irudi piti au berez egitea, mudua, ta ortzean (zeruan) ikusten dozuzan izarraketa eguzkia baño! Orduan Jaungoiko'agan ziñestu eban aizkideak, eta ez-eban geyago Jaungoiko'aren izateatzaz ezbairik euki.

G.

NEGARREN INDARRA

Augustin Milano'ra eldu zaneko, Monike gaxoa Kartago'tik Erroma'ko bidian jarri zan bere semiaren billa. Emakume oldartsu (adoretu) ta ama maitati aunek bere etxe, seme-alaba, aizkide, aberri ta atsedeen gustiak itxi zituen, seme galduari, itxasoz ta liorrez, eltzen zan tokiraño jarraitzeko.

Ekaitz gogorak izan zituen itxasoan. Bein baño sarriago ontzia ondatu, ta bizitza galtzeko zorian aurkitu ziran.

Monike'k berak ziarduan arrantzaliak gogoz sendotu ta bizkortzen. Gustiak arrituta geltzen ziran emakume bulartsua ain sarden eta kementsu ikusita. Monike'k Erroma'ra onez elduko ziran itza emon eutsen. Ain uste sendoa eban, Jauna'k aspaldiz adirazi eutson lez, bere semia Goikoa'gana osoro biurtuta ikusi arte, ilgo ez zala.

Erroma'ra eldu zan, eta an jakin eban, Augustin Milano'ra jua zala. Ez zan gogauldu.

(1) Baliosua.

JAUNGOIKO ZALE

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

VI'urtia
Amabosterokoa

Zornotza 1917 g. Otsala 15.^o

68'g zenbakija
Arpidea lauerleko bi

Aratuste igandeko Goizparkia (Ebanjeliua)

Aldi atan: artu ebazan Jesus'ek amabi Apostoluak eta esan eutsen: Ara; Jerusalem'era guaz, eta igarliak gizonaren Semiaga'tzaz (neutzaz) idatziriko (eskribiduriko) gustia bete ta egiztuko da. Jentillen (zingien) eskuetan itxiko dabe ta onek irriz, zigorka ta txistu-urtika erabiliko dabe; ta zigortauta gero erailgo (1) dabe, ta irugarren egunian berbiztuko da. Baña eurak ez eben onetaikorik ezertxu be ulertu, ta itz onek adigatzak ziran eurentzat, eta ez eben ulertzen esaten yakena. Onetan Jeriko'ra urreratzian itsu bat egoan bide-munan eskian. Eta bidezko aldriaren zaratia entzunda, itandu eban zer ete zan. Eta erantzun eutsen Jesus Nazaretarra igaroten zala. Ta diadarka diño: *Jesus, David'en Semia, erruki zakidas.*

(1) Erail=il-erazo=occidere.

Aurretikuak agiraka ekin eutsen, ixiltzeko; baña berak diadar andia-guaz ziñoan: *David'en Semia, erruki zakidas.* Jesus'ek gelditurik, agintzen dau beragana ekarteko. Eta urreratu zanian itandu eutsan: ¿Zer gura dozu? Eta erantzuten dau: Jau-na, ikustia. Jesus'ek diñotso. Ikusixu ba, zeure ziñestiak gaizkatu edo salbau zaitu. Eta beinguan ikusmena etorri yakon eta ikusten eban; eta berari jarraitu eutsan, Jaungoikoa goraltzen. Eta giz-aldfiak, au ikusita, Jaungoikoa goraldtu eban. (Luc. XVIII, 31 43).

*
*
*

Jesus'en ikasliak bere nekaldiko garraztasun eta oñaziak (tormentuak) aditu ez ebezan lez, geuk be min, atsekabe ta laztasunakazko ez oi-dogu ulertu edo entendidu. Aukera, gozotasun eta aberastasunei agertzen dau tsegube arpegi alaya (argia); baña gure aragai ez biar, zori gogor, gexo ta olakuak ikutu dagioenekoxe,

GAIZTOEN SARIA

(IPUÑA)

Or etzun, emen jausi
Diru gosez arrausi,
Iru lagun gaiztuak
Alper, zuri, galduak
Baso baltzetik zier
Gabez duaz eskier

Jokotik etxera
Bildurrez ikera
Dator laugarrena
¡Gixaxo! ¡errena!
—¡Eup! . . laga sakela
Edo illa zara.
—¿Sakela? aur... zubentzat.
Baña *¿illa?* ¿norentzat?
¡Ordain egik, errena,
Jokoz dokan ogena!

Jarri ziran zelayan
Jokolari diruak
Zenbatzeko irurak
Aukerako garayan.
¿Asetu ete ziran?
Ez, diño Edestiak
Ez ebela estiak
Dirurikan gura jan.
—«Tira, ua urira
Ekar egik ugari
Jakia ta edari;
Ez begitu neurrira».

¡Ointxe nire zoria!...
¡Auxe nire girol!...
Edenez janaria
Nastatu ezkeru,
Diruaren jabia
Izango nok gero.

Gogaldu ta egin,
Ez dago ain urrin
Gaizkin izateko
Asmakizun txarrak
Gaizkeri zustarrak
Burutik kentzeko,
Oldartsu alegin
Ez padagi arin.

Ames gaizto onekaz
Gogoa poztuta
Eden naskagarriaz
Jakia nastauta
Biurtu zan estu
Erailtzako gertu.

Gaiztokideak barrez
Alkarri ziñotsen:
«Ez dok dirua erre
Irutan banantzen».
¿Zergaitik bialdu ez
Illekez bazkaltzen?

Billau legez billau
Agurtu ondoren
Goitik-bera narrua
Eratzi eutsoen
Ta *Eriogaz* jaten
Laster beldu eben.

Gorputza lurralduta
Diruak satitu,
Edenez bazkalduta
Eriotz-aurkitu,
Urreaz jabetuta
¿Nor zan ba gelditu?
Diru zalekeria
Luditarren lorra
Gaiztoen da saria
Eriotz gogorra.

ITURRONDO'TAR J.

Eden=benenua.
Erio=Eriotsa.
Billau=Traidore.
Edesti=Historia.

USKURTZ-GAYAK

¿Ayergakerie ala burubagekerie?

Euzkeldun irakurlea; ziñiste bako-
rik, Jaunari eskerrak geure artean
izan ezarren, bai-dira baña zoritxarrez
erbestetik ekarri dauzkuen *sibilizasi-
ñoa* dala ta Uskurtz (erlegiño) gau-
zakaz aitzute edo garrantzirik beñik-
-bein emoten ezdausienak. Onakoak

yakiña, irakasle burua eginda, izparringi zantarretan irakurten dabezan tentelkeriak, ardanetxe ta akeitetxeetan zabalduen dabez, bear dan itzal eta lotza barik Erlegiñoa'tzaz itz eginda; onen-onena olango gauzak alde batera itzitea dala erakutsiaz, jau-parien gauzak dirala-ta. Onan itz egiten dabenak: ¿bururik ete dauko? Balmes jakitunak gai onetzaz diñoana entzun egizu:

“Bitzzea laburra da: ta eriotza eskier (ziur) elduko da: orain osasunik gogor eta mardulena daukona be, urte batzuk barru ilgo da, ta beragan iku siko dau *erlegiñoak* beste *munduatzas* diñoana egia ete dan ala ez. Zinisterik ez-badaukat, nire ziñisgekeria, nire ezpaiak, nire jardun gaiztoak nire ixeka, nire ayergatasuna ta nire arrokeria gora-bera, gauzak dirian lez izango dira: onak saristu ta gaiztoak zigortuteko beste bizitza bat ba'da, ezer eztagola esatea otu yatala-ta bere izatea eztau galduko; ta nire buru bako ezetz onek lege betikorrak niretzat izentauta dauken etorkizuna eztau obetuko. Azken ordua eltzen danean il bearko naz, ta ezereza edo betikotasuna aurkituko dot. Arazo au neure-neurea da, bakarrik neurea, munduan besterik ez-balego lez; iñor be ezta ilgo nire orde, ta niretzat izentauta dagoan tokia bestek eztau beteko, nik irabazitako sari edo zigorra artuta. Onexek gogalkixunok uskurtzaren (erlegiño) garrantzi andia argiro erakusten dauste, ta baita egia zein dan jakiteko bear-izan andia daukadala, ta “dana dala erlegiñoatzaz eztot gura gogaldu be“ esaten ba'dot, gizonik eroena lez itz egiten dodala. Bidezti batek erreka urtsu bat aur-

kitzen dau; igaro bearrean aurkitzen da, eztaki igarotzean galbiderik ete dagoan, baña bera lez ibai ertzean dagozanari entzuten dago, toki batzuetan ur zakona dagola ta bildurge igaro nai dituana, nai ta nai ez galduko dala. Ta gizon eroak diño: “nirizer dust orren jardunagaitik“ ta buruz aurre sartzen da ibaian. Auxe egiten dau uskurtz-gayetan ayerga danak.“

Au ¿ayergakerie (1) ala burubagekerie ete-da?

GAMA.

Eztago esan bearrik irakurgai onak zabalzia ona dala. ñu ezagutu dabe JAUNGOIKO ZALE irakurten daben askok ete alegiñak egiten ditue orri au zabalitzen ete bazkide barriak billatzen. Zabaldue egizue, irakurle zintzoak, ete arimai on asko egingo deutzazue.

Aldizkingiyak

Gugaz artu-emonak daukezenak onetxek dira:

Euzkera utsezkuak.

Irugarrengo Prantziskotarra illorokoa, lau orriduna. Arpidatzeko zuzendu Iruña'ko Kaputxinoen lekaretxera.

Eusko-Deya amabosterokoa, lau orri andiduna. Bilbao'n Bidebarrieta, 14-2.º

Jesus'en Biotzaren Deya illorokoa, amasei orriduna. Bat Gipuzkeraz ete Bizkayeraz beste bat. Deusto Admon. del Mensajero.

Euzkera ta erderazkuak.

Euskal-Esnalea amabosterokoa, zortzi orriduna. Donostia Fuenterrabia, 14.

Apostolada Franciscano illorokoa, amasei

(1) Indiferentismo.



VI'urtia
Amabosterokoa

Zornotza 1917 g. Epala 1.ⁿ

69'g. zenbakija
Arpidea lauerleko bi

Garizumako bigarren igandeko Goizparkia (Ebanjeliua)

Aldi atan: Artu ebazan Jesus'ek Pedro, Santiago ta onen anai Juan; eta eruan ebazan, bakarrian, mendi andira, ta euren aurrian edo aitziañan irudibiau zan. Bere arpegiak eguzkiak lez birrist egiten eban, bere jantzia edurra baxen zuria zan. Eta agertu yakuezan Moises eta Elias beragaz izketan. Baña Pedro'k diñotso Jesus'i: Jauna, ederto gagoz ementxe. Zeuk gura ba'dozu egin dagiguzan bertan iru txabola, zeutzat, Moises eta Elias'entzat bana. Oraindik izketan egoala, odei argitsuak gerizpetu ebazan; eta odeitiko abotsa entzun zan ziñoala: Auxe da atsegin-atsegintsua yatan Seme laztana, entzun egiozue. Au entzutian ikasliak auspez ezarri ziran bildur-bildurrez. Urreratu yakuen Jesus, ta ikuturik diñotse: Jagi ta ez bildurtu. Jasorik euren begiak

ez eben ikusi Jesus baño besterik. Eta eurak menditik jatsitean agindu eutsen: iñori ez egiozue esan ikusi dozuena, gizonaren Semia illen artetik biztuarte.

* * *

Jesus'ek irudibiauteko bere arimako zoriona gorputzian-ziar urteten itxi, besterik ez-eban egin, eta bere arpegi ta soñekorañoeko guztia argitsu, zuri ta zorionsu iminten dauz orretxegaz. Baña Jesus ain zoragarria eguan ze, ikuskixun aregaz ikasliak, pozan-pozaz birlorauta, antxe gelditu nai dabe Jesus'i begira, ludiko (munduko) gauza guztiekin aitzuta. Baña arimako zorionaren tantatxuak Jesus'en gorputzeraño eldurik au erabiau ta edertu ba'eben, bera ikustiaz pozez zoratuta ikasliak itxiteragiño; ¿zer ixango da Jaungoikua'k gizon zuzenentzat daukon arimako zoriona bera, zorion mamiña, zorion guztia? Berau betiko lortziarren larregi ete-di-

EGUROLA'ren JOSTETXEA LEKEITIO'n

Abade, Gixon eta Emakumien soñeko lirañak

Bilbao'n «Estrella» ostatuan ilero.

Gernika'n «Nuñez»'arenian.

JAUNGOIKO ZALE

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

VI'urtia
Amabosterokoa

Zornotza 1917 g. Epala 15.ⁿ

70'g zenbakija
Arpidea lauerleko bi

Garizuma'ko laugarren igan- deko Goizparkia (Ebanjelioa)

Aldi atan juan zan Jesus Galilea'ko Tiberiades itxasoaren bestaldera.

Ta ozte andijak errayon, gexuetzako mirariak ikusten ebezalako.

Igon zan Jesus mendira, ta antxe jarri zan ikasliekaz.

Judarren jaya, Paskua urrian zan. Jesus'ek begijak jasorik, ondorik etorririko talde andia ikustian diñotso Pīlīpe'ri: ¿Oneik ogia jan dagien nun erosi?

Au iñuan a zirikatziarren, bai ekian berak zer egingo eban.

Pīlīpe'k diñotso: Bakotxari apur bat eldu dakion, berreun amarrekoren ogia be ezta asko.

Ikaslietatik batek, Andres'ek, erantzun eban: ementxe da garagarrezko bost ogi ta arrain bi daukozan mutikua ¿baña ainbestentzat orreik zer dira?

Diño Jesus'ek: Jarri eragin gizonoi.

Elbitz asko egoan bertan. Jarri ziran bost milla gizon samar.

Jesus'ek artu ebazan ogiak; eta eskarrak emonik banatu ebazan jarritakuei. Arrañetatik be bai, gura aña.

Ase ziranian diñotse ikasliei: alperrik galdu ez daitezcan, batu enparauriko ondokiñak.

Baturik, ba, bete ebezan amabi zarrankada, jan ebenei enparauriko garagarrezko bost ogien mutxikiñekin.

Gizon areik ikusirik Jesus'ek miraria egin ebala iñuen: ludira (mundura) etorriko dan benetako Igarlia auxe da.

Ta Jesus'ek bera oratu ta errege egiteko etorriko zirala jakiñik, barriro iges zan bera bakarrik mendira

* * *

¡Zein errukior eta biotz bigunekua dan Jesus guretzako! ¡Ai ezagutuko ba'gendu ondo Jesus Biotza'ren gurgazko samurtasuna eta ondoguria norañokuak diran! Eztago anai, aizkide ez amarik guretzat Jesus baño errai

gara geure Aita Goikoaren altzuan.

Guzialtsua, aloroduna, nai, daun gustia al dau-ta bere agintzak bete eziniñ ez dauko.

Zindoa dalako, bein esaniko itza zainduko dau. «*Ortze-ludia igaroko dira, baña nere itza igaroko ez da.*

Idazti Deuna (Liburu Santuak) gure itxopena biztu ta sendotzeko esakunez josita dago. *Zu zara nire itxopena neure amaren errayetatik. Zoruntzua Jainkoa'ren izena bere itxopen dau gizona. Jauna, nire itxopena neure gastearotik. Jainkoa nire ukondua (laguntza) ta nire itxopena Jainkoa'tzaz da. Zugan itxaro eben eta ez ziran lotsatu. Ilgo ba'nau be, Bera'gan ditxaroket. Jainkoa'gan ditxarona, errukiak kerizpetuko dau. ¿Nor inoiz Jainkoa'gan itxaron-eta lotsatua izan da?*

Ziñez, lo nasai egiteko, Jainkoa'tzazko itxopena baño aurdiko ederragorik ez dago.

GURUTZ.

ITAUN-ERANTZUNAK

Berriz.—Argal samar zabiltzala ta barauak buruko-zorabiua dagitzala, ta berau dala-ta ez dala, senarraz asarreka zabiltzala, ta zer dagikezun itauntzen dozu. Eukera orretan barau egiteko biarkunik ez dozu. Jan, ba, egoki yatzuna ta senarraz gentzaro bizi.

Ezpayan.—Barau egiteko, nai beste edozein agindupian ete dagon, ezpai danak, autor-entzule edo gizon jakintsuari itandu biar dautso, Alan da be ezpaitik atera ezin ba'zara, ba'da-ez-padako legiak biarkunik egozten ez dautzu. Ez zagoz ba agindupian.

Arduratsu.—Paskoaz egiteko aldia lengo igandetik Jesus'en Biotz egunerañokoa da. Aldi naigaña dozu ba. Ez baña atzera begira egon, gauza onek itxiago ta latsago izan oi dira-ta.

Jaunartza ona.—Zuzen zagoz. Eleiza'ren agindua betetako, Jainkoa'ren eskar edo grazian Jaunartu biar. Obenez edo pekatuz (lotsaz pekatuak autortu ez, edo damu barik autortu ta) Jaunartzen daunak, donauste (sakrilejio) izugarria dagi ta Paskoaz ez dau betetzen

GOGO-GAYA

«Berrogeikaro edo Garizuma, kistar-bizitzan, gogoaren negu aldia lez da; ildura, laz-tasun aroa. Nekezariak zugatz ta mastiak inñauten dituan lez, geuk be geure-bizitarako ez biar, ezertarako eztana, ta kaltegarria dana, inñausi biar dogu. Soloak edur eta euriaz oparotuten dirian lez, geuk be geure gogoak gertau ta oparotu biar doguz otoi eta laztasun bidez, Eta neguko gau luze ta egun lañotsu ta itunak (tristeak) gogartiaren bidez geure gogoak gertu ta bertan Goizpar edo Evangelio'ko azi zerutara erne daiten, biar diran bakartasun eta ixiltasunen irudia lez dira; betiko donokia (zerua) irabazi gura ba'dogu azi onetik urten biar diran alort edo fruituak emon daiguzan.» (TORRAS ta BAGES-VICH'ko Gotzainak.)

Jesu-Kisto'k eskatzen dauzkuna

Jesus'en Jayotz - egun baten otoi egiten egoan Jeronimo deuna, gure Jauna jayo zan Belengo atx-zuloan bertan.

Eta deunak berak diñosku itz onek entzun ebazala:

Jeronimo: neure Jayotza egunean, ¿zer emongo dautzazu?

— Ume Jaungoikozko orrek, — erantzun eutson — ba'dakizu, Doipuru (Aita santu)aren laguntza, Roma'ko anditasunak, ta aberastasunaren atsegiñak, zeugaitik itxi dodazala, ta une onetan-txe be nire adimena, nire biotza, nire

oldozkun eta bizitza guztia zeuria da-
la; ¿zer emongo dautzut ba, besterik
eztaukat-eta?

—Jeronimo, gauza bat daukazu aiz-
tuta, ta auxe da nik gura dodana.

—Baña, neure Ume Jaungoiko'zkoa,
neure bizitzaren bizitza, neure maitas-
sun utsa ¿zer geratzen jat emoteko
gauzarik? Neuretzat zerbait gordetze-
ko: ¿ain biotz zitalduna ete naz? Ezai
dazu Jauna, neure Jesus, beste gau-
zarik, ¿zer emon neikezu?

Ixil-unetxo bat igarota itz onetxek
entzun ebazan:

—Jeronimo; emoidaduz zeure obe-
nak (pekatuak).

—¡Nire obenak! ¡Jaungoiko deun-
deunal ¡nire obenak! ¿zertarako gura
dozuz ba?

—Emoidaduz guztiak, guztiak par-
katzeko.

Au entzunda maitasunezko negar
gozoa egin eban.

* *

Kistar euzkelduna; auxe da guri be
Jesus maitiak eskatzen dauzkuna beti,
baña batez be Berrogeikaro edo Ga-
rizuma'n. Geure obenak gura ditu Je-
sus'ek ez geure begien aurrian ipiñi-
ta, geu lotsatzeko; azketsi, parkatu,
ta ezereztuteko baño. Emon dayoguz-
zan ba, bere ordeazkoen bidez eska-
tzen dauzkuzan, oben guztiak, autor-
kuntza on baten bidez, bere odol eder-
eder arren, geure gogoak garbi-gar-
bi egin daitezcan. Auxe izango da
Berrogeikaroan egin geinken gauza-
rik ederrena.—GAMA.

**Umechuen Jaunartzerako berbaldi la-
burrak.**—Amaika itzaldi Elorrio'ko Izurrate
gi Abadeak egiñak. Lau erlen saltzen ixan
da idaztiño au, baña gure bazkidentzako
errial bijan emon dau bere egilleak. Ona es-
katu leike nai dabenak.

IRAKURGARRIA

Aitaturiko Lhande josalaun (jesui-
ta)—arluari jarraituta: = Ene ama,
diño aita Lhande'k, ilzan 1905 g. Ja-
kin nebanian illagiñian eguala aftu
neban Paris'en bultzia (trena), ni ne-
ruana Lille'ra eltzen zan unian andik
urteten zan bu'tzi bizkorra arrapaute-
ko ustiaz, urrengoko bultzian (tren-
nian) baño 14 ordu lenago etxera juan-
go nintzakialako. Eldurik Lille'ra oña-
ze oñazez, min-miñez dakust ene bul-
tzia ordubantxe ufteen zala. Ene be-
suak batzauta diñot: ¡Ene aingeru ja-
golia, ezpiañaugaitik ama kutuna bi-
xirik ikusi ezingo ba'dot, zuaz bera
atsegintzera! Gabeko amarrak ziran.
Urrengo bultzian eldu nintzan Zalg-
ze'ra; nua ariñeketan etxera: ¡ay! ene
ama ilzan. Baña, neure anayak esani-
kua, gauza begiragarria gertau zan.
Il baño apur bat lenago konkofalditik
itxaturik ama, biguñtu zan leyorutz;
bere begiak gozaro bizkoñturik ezarri
ebazan leyoko arñagian. Bera irriba-
rrez ikusirik diñotsoe: ¿Ze jazoten ya-
tzu, ama? Berak diño — “Pierre“ ikus-
ten dot. Ara, neuk, Lille'ko bultzia
igestian, aingeru jagoliari deitu neu-
tzen unia ber bera zan.

Euzkadi — 1.452 g. zenbakitik
artuba = UARRA—Aita Lhande josu-
launaren izena, “Pierre“ da.

Z. M.

DIRUKERIA

Diruagaitik ostuten dau lapufak,
eta Jaungoikoa'ren bildufa galdu da-
ben gizon ta efiak, dirua irabazteko



VI'urtia
Amabosterokoa

Zornotza 1917 g. Jorala 1.^o

71'g zenbakija
Arpidea lauerleko bi

"Hosanna filio David"-Benedictus...

Abesti ospatsu eta alai onexek, entzun zirian gaurko egunian, Betaniatik Jerusalemenera doian bidean eta bere durundija eldu zan Jerusalemgo kalendara, nun geituaz, biurtu zan, Josuri, bizitxan egiñ eutzen goraldirik eder eta ospatsunian.

Urreratuten zan Josuren, nekaldi edo pasñoeko eguna, lotsari andijak eta nekerik gogorrenak igaro biar ebazan eguna, bere sanetako odol guztia izuri eta eriotzarik lotzagarri-jenaren bidez, erosiko ginduzan eguna; baña aurretijaz, bete gura izan eban Igarliak beragaitik ezanik itxi ebana *Jerusalem ecce Rex tuus veniet* Jerusalem! ara or nun datorren zure Erregea.

Urten zan Betaniatik eta urreratutian Betfagera, bialdu ebazan ikasla bi, aurrian agiri zan baserri-etxera ezanaz, zoiaze etxe atara eta atarijan idoroko dozuez loturik asto eta asta-

kume bat, askatu eta ekarrizue eta jaubiak itanduten badeutzue, zer egitera zoiazen, ezan Jaunak biar dauzala; eta beste baga itxiko deutzue.

Ekarri ebezan eta txamarra ta jantzijak gañian ezarririk, jarri zan Josu eta abijau Jerusalemere-runtz bere ikaslak lagun ebazala: bidean topo egiñ eben, gizonezko, mordozka andi bategaz zeinbat aurrerago, ainbat aldra andijago, eta Jerusalemgo atetara eldu zirianeko, zenbatu bere eziñ zeitekian oste andija pillotu zan.

Orduan abijau zirian ikaslak eta osterantzeko guztijak, batez bere mutikotxuak oiuka eta txaloka Jauna donetsiten, batzuek ezarten ebezan euren txamarrak turrian, gañetik igaro zedik Josu; beste batzuek zugatz adar eta ostroak ebagirik botetan ebezan aurreko aldera, eta danak ao baten abestuten eben *Benedictus qui venit in nomine Domine* donetsia izan bedi Jaunaren izenian datorrena; batez bere mutiko koskorrek, onako jai aldie-

tan, beti lenenak eta zaratarik geien ateraten dabenak, erifnotz ostro berdiak, gora gora jazorik eta alde gustietara erabillirik goralduten eben Josu esanaz *Hosanna filio David*. Ango txaluak, angos abestiak eta atsegin garrizko otz, alai ta durundijak ez eukan amairik; dana zan poza, alaitazuna, Josu goraldu naia. Josu zan biotz guztijen jaubia eta biotz guztijak dandarres bere ondoren eruan ebazan. Ez dau ifnongo Erregek, onelako zarrerarik ifnon egin.

Arriturik egozan Eskriba ta Fariseo dollorak, mututurik Eliz-gizonak, aifn zarrera ozpatsua ikustian eta aifn goraldi ederrak entzutian, eziifn gorde izan eben euren biotzetan onbama, gorrotua eta ikusi-eziifna, gaifez egin biareutzen eta azaldurik kanpora, azartu zirian Josuri esaten ez dakusu zer diifnoen onek? isilduizuz. Baifna Josuk, ordu atan goraldija gura eban eta dirautse: onek isilduten badira, arrijak eurak abestuko dabe. Onan oi, ta txalo artian, sartu zan Josu, Jerusalemgo Elexan nun jardun eban irakatsirik ederrenak emoten, illuntzeragiifno, eta ordu atan biurtu zan Betaniara.

¿Nok uste izango eban, abesti, txalo, eta goraldi ospatsu onek, lau egun barru biurtuko ziriala gorroto ta amurruzko deadarretan? Auxe berberau jazoten da gure egunetan; Jerusalemgo Eskriba Fariseo eta Jauntxuak okertze eben lez errija, Josuren kaltez; errijetako kazike eta Jauntxuak okertuten dabez gizon baketsuak, elizgizon eta agintarien kaltez, eta len *Hosanna* abestuten ebenak deituten dabe *tolle tolle*: kendu begijen aurretik, ill bedi, kurutzeratua izan bedi.

Gizona aldakorra da. Ez beragan uste andirik ipiifni, gaur adizkide dirianak, benturaz bijar arerijo izango dira, gaur jazoten gaituenak bijar oiifnpian ipiifniko gaitue. ¡Zorijonekuak Jaungoikuagan bakarrik uste guztia ipinten dabenak!

IZURRATEGI ABADIA.

Josu gurutzpean bigarrenez

Josu'ren Ama samintsua epai gogor ta bidebagea entzunda urten zan enparantzatik Jon eta emakume batzuk lagun zituala. Josu'k bere nekeakaz donetutako toki asko ikertau ebazan; baifna turuta soifu, erriaren zaratak, ta Pilatus'en gudariak iragarri ebenan Josu Kalbario'ranz yoyala; bere semea ikusteko gurariari eutsin ezinda eskatu eutson Jon'i, Josu igaroko zan toki batera eroan eyala; ta joan ziran Josu lenengo aldiz jausita gudariak sartu ziran kalerantz. Ataria eukan jauregi batera, ta eskier enago baifna Kaipas jaupari nagosiaren biztokia zala deritxot. Jon'ek otsein edo atezain baten baimena lortu eban, Maria ta lagunakaz atarian egoteko. Jaungoikoaren Ama zurbil ta begiak malkoz beterik zegoan, eta janzki urdin-ostina eukan estalkitzat. Turutaren soifu ta abotsez epaya kale ukondoetan iragaften ebenen zaratea urreratuez yoyan. Otsein batek edegi eutson atea, ta zarata geroago ta gogorrago ta ikaragarriagoa entzuten zan. Maria'k otoi egin ondoren Jon'i itandu eutson: "¿Ikuskizun au ikusi al izango ete dot?, ¿iges egingo ete naz?"

¿zelan jasan al izango ete dot?», Azke nez atarira urten ziran; Maria adi geratu zan; larogei orkarte urrin guda-riak zetozen; aurrealdetik ezetorren iñor, baña bai albo ta atzetik. Josu'ren Ama nekaldirako tramankuluak eroyazanak arpegi arro ta lotsabagoakaz urreratu yakazanean ikaraz eskuak estututa intzirika asi zan, ta gizon batek itandu eban: ¿Nor da negarrez dagoan emakumori? ta beste batek erantzun eutson: «Galile'tarren ama da.», Gizon maixkorrok itaun onek entzun ebezanean, ixeka ta iraiñez Ama neketsu onen kaltez asi ziran, eta euretariko batek Josu gurutzean josteko eroyazan untzeak artuta Maria'ri ixekaz erakutzi eutsozan. Maria'ri Josu'ri begiratu eutson, ta ezpanak ubel ta gorpu illaren antzera zurbilduta ateari oratu biar izan eutsan jausi eziteko. Parixetarrak zaldietan igaro ziran; gero gurutz-idazkunagaz mutiko bat, eta ondoren Josu bere seme Deuna ikaraz ta gurutzpean tolestuta ta burua arantzazko bureztunaz sorbaldan etzunda. Bere Ama'ri errukiz begira egoala, topo eginda jausi zan bigarren aldiz esku belanakaz lurra joarte. Maria'k samintasanaren indarrez gudari ta gaizkiñik be ezaban ikusi, bere Seme'ari bakarrik adi egoala urten zan ataritik Josu josten ebiltzazan gudarien erdira, ta bere ondoan belaunbiko jarrita besartetu eban. Nik itz onetxek entzun nebazan ¡Ene Seme! ¡Ene Ama! Ez dakit baña itzez ala gogoz bakarrik esan ebezan. Gora bera apur bat izan zan. Jon eta emakume doneak Maria jaso gura eben. Urizain batek irainduten ebalá esan eutson: «Emakumeoi ¿zetan zatzot? Asiera ohea emon ba'zeuntzo gu-

re menpean etzan jausiko.», Gudari batzuk baña errukitu ziran.

Aldendu eben andik inork ikuturik be egitzeke. Jon eta emakume doneak inguratu eben eta ilda lez jausi zan atariko arri nagosiaren ganian, eta bertan bere eskuaren lorratsa (1) itxi eban. Arri au gogorra zan ta Jagoba Txikarra Gotzain zala kistarrak Bessedá'ko oxin ondoan egin eben lenengo txadonara oroan eben. Ikasleak Josu'ren Ama'gaz etxebarruratuta atea itxi eben. Bitartean urizaiñak jaso eben Josu ta gurutza bere sorbaldan beste era baten ipiñi eutsien Gurutz besoak lokatu ziran ta bata lokarrietatik zinziliska lez gelditu zan; beso au besartetu eban Josu'k ta andik aurrera narraska eroan eban gurutzea. Gudari ondoren madarikaziño ta irainka jarraituten eben ozte artean, or emen agiri ziran emakume batzuk buruak estalduta negar-malkoak eriozala.

Ane Katariñe Emmerich'en Nekaldi Edesti'tik euzkeraldia.

M'TAR G'EK.

(1) Huella.

Emon dotzubet, ziñez, erakusguna

(Deun Jon'ek, 18'g. eta 15.g.)

Ekandu on gustijen erakusguna Josuk emon euskun ludijan bixi zan artian, baña gaur gustijen gañetik dagerkuzanak bere indatasunetik (ekandu onetatik) apaltasuna ta mañasuna dira. Garbitzen daskuz oñak eta damosku beren gorputza Eguben deunez urtoro etof-ten gara kistañok txadonara, Josu irakasliaren erakusguna gogaldu ta ikastera. Eta ¿zer? Geure erakusgunak diño zer. Josuren apaltasun eta mañasunakin gure egipenen erakusguna aurka dago. Bere erakusgunari jañaituko

«Edan egizue onetzaz gustiok. Auxe dalako Ziñalben (testamentu) Barriko neure odola, askoren aldez, euren pekatuak azkatuteko, isuriko dana Edaten dozuen baikoitzean, neure gomutaz egikezue au.


Maitatiak maitiari daukan gustia emon ondoren bere burua emoten dautso.

Jesu-Kisto'k dan-dana emon dauku.

Jayotzan bizkidetzat
Bizitzan janaritzat
Gurutzan saneurritzat
Donokian saritzat.

Gora Jesus Ikurton Deunean (sacramentuan)
Gora ta beti maite izan bedi.

IBARGUTXI'TAR J.



GETSEMANI

Jesu Apaltoki'ko itzaldia amaituta, bere amaika ikasle lagun zituala. Hierosolym'tik ordu erdi barru egoan, Getsemani eritxon baratzerantz urten ziran.

Gabeko amarrak inguru ziran. jllargiaren izpi motelak argitzen eutsen bidea; guztia egoan ixilik, eta ezan entzuten Zedron'go erreka-otsa ta aizeak zugatz adarretan egiten eban zurrumurrutxo baño. Ikasleak ifun (triste) joyazan entzun ebezan gauzakaitik, baña ifunagotu ziran Jesus'ek bere Nekaldi ta eriotza'tzaz

esan eutsezan itzak, euren gogoetan gogapen (pentsamentu) artegakorrak sortu ebezalako. Onetan igaro ebezan Zedron eritxon errekarria ta Josafat zelai bakartokia, ta Getsemani'ko baratzer a eldu ziran. Zortzi ikasle sarre-ran egoan etxean itxi ta, Jesus, Pedro ta Jon eta Jakobo Zebedeo'n seme biak lagun zituala barreneratu zan. Bat batean zurbil eta larrifuta, "ikaratu ta ifuntzen (tristetzen) azi zan" (Math. XXVI) ta bere iru lagunai esan eutsen: "Nire gogua eriotz atsekabez ifun dago; ernai itxaron egida-

zue ementxe". Ikasleakandik aldendu zan urrean egoan arrzulo (cueva) batera, ta lurrean auzpeztuta otoi egin eban: "Neure Aita, al-bada ontziau nigandik aldendu egizu. Baña ez daitela neure naya egin zeurea baño". Eta arteak artu ezinda atsekaberen-atsekabez, atsegin billa joan zan bere iru ikasleakana, baña saminduagotu zan bere biotza, lotan aurkitu ebazalako. Esnatu ta maitekiro esan eutsen: "Ordu batean Neukin ernai ezin egon al izan zarie? Ernaitu, ta arren-egin ziltzaldian (tentaziñoan) ez sartzeko". Gogua egiz, gertu dago, baña aragia argal". Barriro be otoi berbera egin eta biurtu zanian lotan aurkitu ebazan. Eta ezer esan barik joan zan irugarrenez otoi egiteko. Jesus zurbil, ikaraz, estu ta larri zegoan; eta atsekabe ta estutasunaren indarrak, arnasa estutu, ta samintasanaren-samintasanak bere biotz samurrari eragiten eutsozan taupada soliaren indarrez, odolak bere zain gorriak urratu, ta gorputz guztitik odolezko izerdia lez zabaldu zan, lurreraño eltzen zala.

* *

¡Ikuskizun arrigarrial ¡Aingeruen poza dana, itun-itun(triste!) ¡Guztiaiduna laguntasun eske ta aurkitu ezinik! ¡Guztion Jauna ikaraz dar-dar, ta zurbilduta! ¡Zeruko zoriona atsekabe indarrez odolezko izerdiz bustital! ¡Zelan izan leiteken? Gizonak ezin azaldu lei Jaungoiko'aren eskutua da ta. Baña esan geinke, Jesus'ek une atan bat-batera ikusi ebazala, bere irudimen biziaz, Judas'en nabarkeria, bere ikasle maitearen lotsakeria, arerioen amurru bizia, ta amabi ordu barru igaro bearko eban Nekaldi gogorra; au da; neke, atsekabe, samintasan, zigor, irain, eta zauriz beterik eriotz lotsagarrienagaz bere bizitza eder eta ain maite ebana, gurutza baten galdu bearko ebalá. Ta gogalben onek bere gogua ikaraz eta larri-larri ipinten eutsan.

Ganera, gizonok aldi eta toki guztietan egin doguzan eta egingo dabe-

zan oben (pekatu) guztiak gogoratu ta euren ezaintasan ta nasaikeri guztia ezagututen eban, eta Jaungoiko on-onari eurakaz egin yakozañ iraiñoñok ordaintzeko bere gain artu bear ebazala gogoratuta, beregogua iguindu zan. Ta azkenez bere neke ta atsekabeak gizon askontzat alperrekoak izango zirala gogoratuta bere gogo deuna itun, lur jota lez geratu zan. Ta ikara, larritasun, iguin eta alegetasun (tristura)onek biotza estututa odolezko izerdia atara-erazo eutsen, mats-mordoari sakatuta bere ura ataraten yakon antzera. ¡Obenaren (pekaturen) astuntasun ikaragarria!

«Onetan agertu zan zeruko gotzon bat eta atsegindu eban (Luk. 22) Irugarrenez joan zan ikasleakana eta esan eutsen:» Tira; lo eikezue ta atsendendu... Baña naiko da; ordua eldu da; gizonaren Semea obendioen eskuetan ipiñiko dabe. Jagi zaitezue, ta goazen; saltzallea urdago-ta. (Marc. 14.)

MANTEROLA'TAR GABIREL.

Sunerazan Susej

Pilatus'ak, idazkun berauxe ezarri eban, beraren gurutz ganean, ekan-duba egualako, ala ezpaeguan, Josu'ri beintzat jarri eutsoen. Aemen bera euzkeralduta: *Auxe da Josu, Judavren Bakalduna.*

Pilatus'ak ondo ekijan, Josu oben-gea zala ta zigortau ta untzetako emon ebalá, erru ta zegaitija bagarik; baña beraren irailkixuna aldeztu gura eban, esanaz: Josu'k bakelerrija billa ebillala ta augaitik iraildu ebalá. Auxe ixango ete zan beraren asmua; baña Jaunguarena beste asmo egokijagua ixan zan.

ALBIZURI'TAR SERAPIN.

JAUNGOIKO ZALE

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

VI'urtia
Amabosterokoa

Zornotza 1917 g. Jorala 15.º

72'g. zenbakija
Arpidea lauerleko bi



LEOPOLDO EIJO TA GARAI
Gazteiz'ko Gotzain jauna

GOTZAIN BARIARI AGUR

Agur, geure Gotzain maite o'ri. Jaunaren ixenean zatoz euzkeldun-gote'ki aonetara: gure goguak zaindu, la're osasuntsuakin alikatu ta geure ur'atsak donokirantz zuzentzeko zatoz. Aspaldi aonetan euzkeldunai euren elez donoki-bidea irakasten diarduan Jaungoiko-Zale bazkunak, ur'utidatzez bialdu eutzun bere zorion-agu'ra, ta orain, zu gure ar'tean agertu ba'ño len, ba'iro damotzu bere ondo-eto'irik samur' eta maitatsuena.



VI'urtia
Amabosterokoa

Zornotza 1917, g. Oriñā 1.ª

73'g zenbakija
Aripidea lauerleko bi

Pasko osteko laugarren iganderako Go'zparakija

(Joann. XVI 3-12)

Aldi atan Jesus'ek bere ikaslai esan eutzen:

Bialdu ninduana gana nua, ta zube-
tariko iñok be ez deust ifandu: ¿nora
zoaz?

Baña gauzaok esan dautzubedazala-
ta ifunak zuben bijotzok bete dauz.

Nik, baña, egija diñotzuket: zuben-
tzat ona da ni juatia; juango ezpanitz,
ba, Goteuna (Espiritu Santuba) elitza-
kixube etorriko; baña ni juan ezkeru,
bidalduko dautzuket.

Eta bera etorriko danian, gizadija
salatuko dau obenaz, baiña zuzenaz,
baiña epayaz.

Bai obenaz, Nitzaz siñetsi ezabela-
ko; baiña epayaz be, ludi onetako na-
gusija epaikatu dabelako; baiña zuzen-
naz, Ni Aifagana nualako ta geyago
ikusiko enozubelako.

Oindiño gauza asko zubei esateko

daukadaz; baña oindiño ezin dozubez
ulertu.

Baña egijadun Gogo a datorkenian,
egija osua irakatsiko dautzube; bere-
giko itz-egingo ez daulako, berak en-
tzuna baño; eta etortekuak iragarriko
dautzubez.

Berak argitauko nau, nigandikua
artu ta iragarriko dautzubelako.

* * *

Gure ona, egiz guretzat ona dana,
ez dogu ulertzen; eta okerra ta kalte-
korra deritxoguna, auxe ixaten da sa-
rritan guretza ona.

Ipini, ba, zeure bijotza ta gauza
gustijak Jauna'ren eskuetan, eta esan
sarri: Bemoskuzu, Jauna, zeuk nai do-
zuna.

DOIBATZ-EGUTEGIJA

Igandiak: 6'g; 13'gn.

Igandietan kistañ orok jaupa osua entzun-
biañ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

Jesu-Kisto'ren alatzak (mirariak)

- Naim'go alargunaren semea (Luk. VII, 11, 17). -

Kaparnaum'en eunburu edo zenturionen semea osatuta Jesus, urrengo egunean Naim'era joan zan. Naim, Hermon deritxon, mendi egalean dagon erri koskor bat da, baña Jesus'en aldiandian zerbaiteko uria izan biar izan eban. Biztanleak ziniste bizidunak ziran. Eldu zan ba, Jesus uri onen sarrerara bere ondoren ozte andia zekarrela. Onetan ildako bat, ozte talde andiak laguntzen eutzela atara eben erritik. Erriko alargun baten seme bakarra zan. Palestina aldean-nun nai be bai baña-obiraltzeak oso itunak (tristeak) dira. Illaren senitarte-koak ildakoa gantzutu, esku oñak lotu, il-oyal baten bildu, ta aurpegia agirian eta begiak itxita dauzala eroaten dabe anda batzuetan obiratzerara. Aurretik joaten dira illetariak negar eta garrasika, txistulari batzuk (gitxienez bik) eresiakaz laguntzen dautsiela.

Illeta onetan negar-garrasiak andiak izan ziran, batez be ama alargunenak. Jesus ikuskizun onegaz errukitu zan, eta ama samin-duari esan eutson: «Ez negarrik egin». Eta urreratuta ikutu eutson andari. Andariak geratu ziran eta Jesus'ek esan eban: «Gazte neuk agintzen dauzat; jagi adi». Bat-batian illa jarri andetan eta itz egiten asi zan, eta Jesus'ek bere amari emon eutson. Talde guztia arrituta geratu zan alatz (mirari) onegaz, ta guztiak goralduten eben Jaungoikoa esanaz: «Igarle andi bat agertu da gure artean; Jaungoikoak bisitau ikertu, dau gure erria». Ta izparra beingo baten zabaldu zan Juda guztian.

Begira kistar euzkalduna, gorputzeko gatzetan Jesus'ek agertu eban errukia. Ta bere ontasuna ta errukia ain andia ba-da gorputzeko gatzak osatzeko, arimako gatzak, obenak kentzeko ¿ez ete da andiagoa izango? Eukizu ba, aurrerantzian uste osoa Jesus maitiaren Biotz samur eta errukitsuan.

GAMA.

JAUNGOIKO ZALE

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

VI'urtia
Amabosterokoa

Zornotza 1917 g. Oria 15.^a

74'g. zenbakija
Aripdea lauerleko bi

Jesus-Igokunde (Azentzijo) egunerako

“Beldu edo Apostoluen egiñenak” deritxon idatzian (liburuan) auxe irakurten dogu gaurko jayatzaz, eta Meza-esatian auxe irakurriko dabe Abadiak egun autan:

Lenengo itzaldia egin neban, Teopilo, auturiko Apostoluei Espiritu Santuz irakatzirik, zerura igo zan eguneraño, Jesus'ek egin eta irakatziz eban gauza guztietzaz:

Eurei aurkeztu edo presentau yakuen bizirik, nekaldi ostian; egibide askogaz berrogei egunetan agertu ta Jainko-bakalderri edo erreñuatza itz egiñik.

Eta eurakin bazkaldurik agindu euzten Jerusalem'dik ez aldentuteko, itzaroteko neure agotik (ziñoan) entzuniko Aitarene eskintzia:

Bada Joanek urez batiatu eban, baña zuek egun gitxi barru Espiritu Santuz batiatuak izango zarie.

Eldu ziranak itauntzen eutsoen: ¿Jauna, Israel'go bakalderria orain barriztauko ete dozu?

Ta berak iñotsen: Aitak bere menpian ipiñiriko aldi ta uniak jakitia ez dagokitze:

Baña artuko dozube goitik zeuekana etorriko yatsuben Goteun edo Espiritu Santua'ren almena; ta Jerusalem'en, Judea osuan, Samaria ta lurralde gustietan izango zayataze ziñaldari (testigu).

Eta oneik esanda, eurak ikusten ebela igon zan; eta odehyak estaldu eban euren begietatik.

Berari, zerura yoyala, begira egozala, gizonezko bi zuriz jantzita alborra etorri yakezan, eta esan eutsen:

Galileatarrak ¿zer egiten dozube gora begira? Zeuekandik zerura igon dan Jesus ber-bera etorriko da, gora yuaten ikusi dozuben lez.

* * *

Aor nun daukogun Jesus, bere nekaldi, min, eta atsekabiak azkenduta


E D E S K I A

Napoleon'ek Elene deunaren ugartean erbestetuta egoala, bere gudalnagusi Bertrand' egaz sarriten ziarduan Josu-Kisto'ren Jaungoikotasunatzaz. Bein baten galdetu eutson. ¿Zuk Josu-Kisto'tzaz: ¿ze aburu daukozu? ¿Nor da Josu-Kisto?

Akiakulakaz erantzun eutson: bere bizitzan aldi gitxi euki ebala olango gauzetan oldoztuteko ta abar. Ondo dago, erantzun eutson Napoleon'ek, neuk esango dautzut. Ta Goizparra zabaldu, ta asi zan bardinduten Josu-Kisto izan diran gizon ospetsu guztiakaz, ta agertu eban bere berarizko egikun eta izateagaitik danen gain ipiñi bear zala; ta azkenez itz eder onexekaz amaitu eban: *Z'ñestu egidazu; nik gizonak ondo ezagutzen dodaz; ta diñtztut Josu Kisto gizona baño geyago, Jaungoiko be, bazala.*

GAMA.

JAUNGOIKO ZALE



EUZKELDUNEI EUZKERAZ

VI'urtia
Amabosterokoa

Zornotza 1917 g. Bagila 1.ⁿ.

75'g. zenbakija
Arpidea lauerleko bi

Goteun-etorkunde osteko lenen- go igandeko Goizparkija (Ebanjelijua)

Aldi atan Jesus'ek bere ikaslai esan eutzen:

Errukiorrak zaitekez, zuen Aita be errukiorra dan lez.

Ez-eikezue^a iñor etsi, ta zuek be etzaitue etsiko; ez eikezue iñor gaiztetsi, ta zuek be etzaitue gaiztetsiko. Azketsi eikezuz ta azketsiko dautzue.

Emon eikezue, ta zuei be emongo dautzue: neurri ona ta betia ta eraña (ondo bete daiten) ta ganezkoya zuen kolkuetan imiñiko dautzue. Zuek neurtuko dozuen neurrijaz neurtuko dautzue zuei be.

Ta irudi au be esaten eutsen: Itsuak itsua bidez daruake ala? ez ete dira bijak lezara jausiko?

Ikaslia ez da irakaslia baño nagusi-jagua; ikasliarentzak asko da irakaslia beste izatia.

Eta geidiaren begijan lastua ikusten dozu-ta, zeure begijetako abia ez dakuzu?

Eta zelan zeure anayari diñotzazu: anai, eure begitik lastua kentzen itxi daik, zeuk zeure begijetan abia ez dakuzula? Azal-guzur, lenen zeure begijetatik abia kendu egizu, ta orduban ikusiko dozu ondo, anayaren begitik lastua ataratzeko. (Luc. VI, 36 42).

* *

Iñorbaiten begijetan begijak jo baño lenago geure buruarenetan jo biar doguz, geure buruak lenago zuzentzeko. Ta buruak zuzendu doguzanian, orduan geidia zuzentzen alegindu gaitkez.

Neska-mutiltxuentzako

Urduri zabiltze kistar-ikasti-azterketan sarija zeñek irabazi daun jakin arte. Itxon beste apur baten. Erantzun dabenak asko dira, ta aztertzen diñargu. | A polito erantzun dozuena,

JAUNGOIKO ZALE

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

VI'urtia
Amabosterokoa

Zornotza 1917 g. Bagila 15.ⁿ

76'g. zenbakija
Arpidea lauerleko bi

Goteun edo Espiritu Santu Etor- kunde osteko III Igande- ko Ebanjelijua

Aldi atan: Urreratu yakozen Jesus'i zergari edo publikano ta pekatarijak, berari entzutiarren.

Barriz parixeotarrak eta jakitunak mur-murka ziñoen: Au pekatarijakaz dabil eta eurakin jaten dau.

Eta Berak irudi onegaz erantzun eutzen:

¿Zuetariko edozein, eun ardijen jabe ixanik, bat galduko ba'litzakio, larogeta emeretzijak lekaro edo desiertuan itxirik, ez ete-litzaké galdurikuan billa asiko, axe idoro arte?

Eta idorotakuan, iminten dau pozik bere sorbaldan.

Ta etxera eldurik deitzen dauz auzoko ta aizkidiak, esanik: poztu neugaz, galduriko ardiya idoro dodalako. Diñotzubet, zeruan be olantxerik,

garbaturiko (damaturiko) pekatarijagazko poz andijagua ixango dala, garbatu biarrik ez daben larogeta emeretzi onakazko baño.

¿Eta, zein andrak amar zidar-diru eukirik, bat galduko ba'litzakio, eleuke argija ixioturik, arduraz etxia aratuko zidar-dirua idoro arte?

¿Eta idoro ezkeru deitzen dauz aizkide ta auzokuak, esanik: poztu neugaz galduriko zidar-dirua idoro dodalako?

Diñotzubet ba, alakoxe poza ixango dabela Jaungoikuaren aingeruak, pekatari bat garbatu daite-nian. (Luc. XV. 1-11).

DOIBATZ-EGUTEGIJA

Igandiak: 17'gn.; 24'gn. Deun-Jon Ugutza-le-Jayokundia.

Jai osuak: Kepa eta Paul-Deunak, Beldubak. Kepa lenengo Doipuruba.


II

M—iren neskutsa, Ama lastana,
I—txasgixonen ixargija,
ER—askun ordez gertu eiskuzu
E—stu aldijan egapia,
N—ekien atseden tokija.

III

J—oseba deuna, erkaba guren,
O—ngile baita zaindarija,
S—alean, eufez-eregau gaxuz
E—skar, zorunez bixitzia,
B—aita erijotzan emoguzu
A—rtez saritzat donokija.

MAZELAGAN'DAR AYA.



JESUS'EN BIOTZA

Jesus gure Jauna'k gizonai bere Biotzak eutsen maitetasuna eta erruki neurri gabea agertu gura izan euskula, Margarita Maria Alakoke'tarren bidez egin gura izan eban.

Paray-le-Monial'en lekaime (monja) zoriontsu au bizi zan. Sarritan agertzen jakon gure Jauna ta erakutsi

ederrak emoten eutsozan; ta agerkunde oneitariko baten garrantzi (importantzi) andiko gauzak irakatsi eutsozan bere Biotz Deunaren Gurtza'tzaz. Ara Margarita Miren'ek agerkunde onetzaz diñoana:

Gorpuzti'tik zortziurren barruko egun baten, gure Jauna'ren aurrian nengola, bere maitetasun utsez esker geyegiak Jaungoiko'ak egin eutzazan. Eta bere maitetasunari zelanbait erantzuteko gurariak igituten ninduala, ta maitetasunari maitetasunagaz erantzuteko asmuetan nenbillela esan eutzan: Neure aldez ezingo dozu egin gauza andiagorik ainbeste bidar eskatu dautzudana baño. Ta bere Biotza agertuten eutzala esan eban: Aor gizonak maite-maite izan dituan Biotza, bere maitasuna agertzeko, aulduarteraño, ezereztuarterañoakoak egin dituana; ta eskar onen ordez eskar txarra baño besterik geyenakandik eztot artzen, Maitasunezko Sakramentuan egiten dautziezan, itzalgekeri, donaste (sakrilegio) ostasun eta esetsiakaz.

Baña geyen atsekabetzen nabena auxe berau neuri opal dutako biotzak egitia da. Augaitik eskatzen dautzut, Sakramentu Deuna'ren zortziurrenetik urrengo bariyakuan, neure Biotza'ren aintzaz jai berarizko bat egiteko, Jaunartzan eta agirian egon dan artean egin jakozan iraiñen ordez agirian goraldiaz.

Eta neure Biotz au zabalduko dala abintzen dautzut, omen au egin eta eragiten alegintzen diranen artean bere maitetasunezko eskar jaungoikoakoak ixuriteko.

Lekaime (monja) apalak, eskatzen eutsona zelan egin ezekiala erantzun eutson: ta orduan Jauna'k Lakonbie-

re josulauna'gana (Jesuita) bialdu eban. Onen bidez Jesus'en Biotza'gana eraskuna alatzez (mirariz) lez zabaldu zan, ta geyago barriz bere Biotz-zaleari egindako agintzak jakin zirianian.

* *

Jesus'en Biotza'ren agintzok onek dira:

1.^a Euren bizibideko biarkunak (obligaziñoak) betetzeko eskar ugariak emongo dautsedaz.

2^{na}. Euren sendietan gentza (pakea) eukiko dabe.

3^{na}. Euren atsekabetan atseginduko dodaz.

4^{na}. Euren bizitzan eta eriotzan batez be zaindoki ziurra izango naz.

5^{na}. Euren egikun guztietan eskar ugariak ixuriko dautsiedaz.

6^{na}. Obendijak (pekatariak) errukizko iturri ta itxaso neurribagea neure Biotzean aurkituko dabe.

7^{na}. Gogo epelak iziotuko dodaz.

8^{na}. Gogo sutuak done-donetuko dodaz.

9^{na}. Neure Biotz irudia agirian ipiñi ta aintzalduko daben etxiak onetsiko dodaz.

10^{na}. Jaupariak (abade) biotzik gogorrenak bigunduteko eskarra emongo dautset.

11^{na}. Eraskun au zabaltzen daben izenak betiko neure Biotzean idatziko dodaz, ta bertatik eztodaz iñoz kenduko.

12^{na}. Neure biotzeko maitetasun geyegiz agintzen dautzut, bederatzillabete jarraituetako lenengo bariyakuetan Jaunartzen dabenari, azken iraupeneko eskarra egingo dautsiedala; onek neure asarrean eta Elexako barik ezdira ilgo, neure Biotza ba

izango da euren zaindoki eskierra (ziurra).

Irakurle; agintza eder ederrok aintzat artuta maite-maite egizu Jesus'en Biotz deun-deuna.

GAMA.

JAUNGOIKO ZALIAI

Asmo zarra.

JAUNGOIKO - ZALE, eleiztarrak eta abadiak alkarregaz batzeko sortu ta jayo zan. Auxe da gure bazkunaren asmoa. Jakitunai irakasteko gai ez gara. Ez dogu jakintsuentzat idazten. Erritarrakaz bizi nai dogu. Euzkeldun bakoitzari irakatsi gura geunskio, kistarra danez ziero jakin biar dauna. Onetarakoxe argitaltzen doguz beste idaztiñoak (liburutxoak); euzkel-erriko sutondo gustietara eldu, ta euzkeldun guraso ta seme-alabai zeruko bidia irakasteko.

Soñeko barria.

Jainkoa'ri eskerrak, Jainko-Zalekoak ugarituaz guaz. Erkin jayo giñan; koskonduaz guaz; odol gastia ta bizia daukagu; sendotu ta indartzeko bidian gagoz. Mutiko koskonduari, ume soñekoa ondo ez datorkio. Soñeko barria biar dau; bere neurrikoa. Prakak jantzi biar ditugu ba.

Taldetxoak.

Edo aldrak, zeuek nai dozuen lez; auxe da guk egin biar dogun soñeko barria. Erri baktorian Jainko-Zaleko bazkide edo arpide diranak, talde-txoak egin biar dituez. Banan ez gabiltz ondo. Ari bakarra arin apurtzen da: korapil irukoitza apurtzen zalla da. Zallago gu bezelako asmo eder,

ITAUN-ERANTZUNAK

Karmeldar kutuna. ¿Noz ta zelan sortu zan?—1251 g. urtian, Simon Stock, Karmeldar aba, Andra Maria'ri otoi biziz eskatzen zegoan, ezangarri zerbait, arren, emon egiola, Karðeldar anai bazkuna bere gogokoa zara adirazteko. Andera Maria ogertu jakon, eta bere kutuna emenda, esan eutson: *Ar, u egizu, ene seme maite orrek, zure anai bazkunaren kutun au, ene anai bazkunaren ezangarri, suretzat eta Karmeldar gustientzako gallaldia* (pribilejiua): *Kutun au soñian daula ilten danik, betiko suan ez da jausiko.* Geruago Jon XXII g. Aita Santua'ri eskiñi eutson Ama Maria'k bere kutun au soñian dabela ilten diranak, ilda ondorengo larunbatez Garbitoki'tik zeuratuko dirala

Baldintzak. ¿Zer biar dan eskintza pozkarri ori irabasteko?—Kutuna edo Kutun ordezko domiñia aldian erabili. Parkamenak irabasteko, bakoitzak bere bizibidiari dago-kion garbitasuna zaindu: Eleizak agindutako barauak egin, eta egubaztenez aragirik jan ez.

Gero Karmeldar Abaen otoi, garbai ta beste egiñen onetako zerbait geureganatzeko, Karmeldar kutuneko batzarrian bazkidetu kiara da.



VI'urtia
Amabosterokoa

Zornotza 1917 g. Garila 1.^o

77'g zenbakija
Arpidea lauerleko bi

Kristo'ren Antz-Bidia

Lenengo Idaztia (librua), ta lenengo irakurburuba

Jauna'k diño San Juan'en agoz: "Ni-re ondoren datorrena eztabil illuntan., Oneik dira Kristo'ren be'ba adierazoten dauskubenak, gura ba'do gu benetan afgitubak izan eta biotzeko itxukeri guztitik alendubak, antzeztuteko bere bizikera ta oiturak.

2. Alan ba gure egikixunik andiena ixan daitela Jesukristo'ren bixikeria gogartzia.

3. Kristo'ren ikastia (dotriña) zorronekuen ikasti guztien ganetikua da, ta biozkeria euki ezkeru antxe billatu ko leuke ezkutauroko Mana.

Baña, Kristo'ren biozkeria eztaukelako, jazotenda, askok Ebanjeliuma sarrri entzunarren gurari gitxi susmetia.

Barriz, Kristo'ren be'bak osoz ta gozaro ule'ftu gura dituenak, biarre-

kua dabe euren bizitza gustia arengaz eraturten alegintzia.

¿Ze gauzizango jatzu Irutasun'eko egitasun sakonak azaltzia, apaltasun ezaz Irutasun'ori atsekabetzen ba'dozu?

Egiaz esakuna eregiak eztabe iñor santu ta zuzena egiten; baña bizikera onbidetsubak egiten dau Jainkua'ren maitia.

Gurago dot gafbaya susmetia, zedandan azaltzen jakitia baño.

Idazti Deun (Liburu Santua) guztia, ganetik, eta pilosofo guztien esakunak jakinarren; ¿ze gauzizango litxakizu guztioi Jainkua'ren maitasun eta grazia barik?

Jainkua maitetu ta bera bakarrik otseindutia: "ez ostian guztia da utsezko uskeri utsa." (Eccl. I. 2).

Auxe da gorengo jakituria ludia ezetsi edo despreziaubaz zeruko bakalterriruntz juat'a.

4. Uskeria da ondasun amaikorrak billatu ta eurakan itxarotia.

JAUNGOIKO ZALE

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

VI^ourtia
Amabosterokoa

Zornotza 1917 g. Gariā 15.ⁿ

78^g zenbakija
Arpidea lauerleko bi

Goteun-etorkunde osteko VII Igangeko Goizparkija

Aldi atan: Jesus'ek bere ikaslai esan eutzen: arduraz iragarle guzurretaz; zubekana ardi-narruz datoz; bañan barruz otso amorratubak dira; euren egiñetatik ezautuko dozuez. ¿Arantzia matz mordorik emoten ete dau edo larreak ikorik? Olantxe, zugatz on orok igali onak emoten ditu, ta zugatz txarrak igali txarrak. Zugatz onak ezin igali txarrik emon leike, ezta zugatz txarrak igali onik. Eta igali onik ez dagijan zugatz oro, ebagiko da ta sutara jaurtiko da. Oin ba, euren egiñ tatic ezautuko dozuez. Ez dira zeruan sartuko "Jauna, Jauna," esaten daben gustijak; ordez neure Aita goyan daguanaren naya dagijana, auxe bai, sartuko da zeruan.

* * *

Bai-ziran Jesu-Kistoren aldijetan egi ta on antzaz guzurra zabaldu ta

gaitz bidera gizakumiak 7eruatzen zituena. Jesu-Kisto'k ardi narrudun otso amorratubak eretxi eutzen; eta eurakin ardura izateko, ta eurak ezautzeko ezaupide argi eskijerra ikasliei emon eutzen. Zugatzak igali edo eskurretik ezautzen diran lez, gizakumiak egiñetatik ezautzen dira.

Gure aldijetan be, bai dira egi ta onaren antzaz guzurra ta gaitz-bidia zabaltzen dituenak. Eurakandik alde egin biar dogu; euren irakaskizunak, kaltekorak dira-ta, ez ditugu artu biar; belarrijak itxi ta jaramonik egin ez baño.

Baña irakasle guzurti ta guzur utza diran orretatik alde agiteko, ezagutu biar ditugu lenago. Igaliak, ezkurak edo egiñenak begiz jo daiguzan. Arantzatik matz-mordua ezin artu geinke, ezta larratik ikorik.

Irakurle: ¿ez ete dozuz aditu sarritan gure erlekiñoaren ta jauparijen kaltez esate irainkorak? Tira ba ¿zein ete da esale orren igalia? ¿Ona ala

JESUS'EN ALATZAK (Mirariak)

Betsaida,n elbarritu bat osatzen dau

(JON. V, I - 18)

Jesus, judarren jai bat zala-ta Galilea' tik Hierosolym'era bigurtu zan. Ta egun baten Elexara joyala, Betsaida (erruki-etxe) eritxon ondoan egoan osiñera urbil-du zan. Diñoenez Siloe iturri ospetsuaren ondoan egoan osin au. Bost aterpen erdi-an egoan. Aterpe oneitan gexo talde andie, itsu, erren, ta elbarrituak etzanda egozan osin-uraren zirkiñaren zain. Aldiz aldiz ba, Jauna,ren aingerua etorten zan urari zirkin eragiteko. Eta orduan lenen uretan sartzen zana, edozein gatxetik osatuta urteten zan.

An zan gizon bat igaroko ogetamazor-tzi urtetan gexorik egoana. Jesus'ek etzunda ikusi ebanian, eta jakiñik urte asko gexorik eroyazala ezan etson;

«Osatzea gura dok? Ta gexoak eran-tzun eutson:

«Jauna, urak zirkin egiten dabedian, osiñera eratziko [naben gizonik eztaukat, ta beti bat edo batek aurrea artzen daust».

Jesus'ek erantzun eutson: «Jagi adi; artu egik eure ballarta edo oetxua ta abil» Ta bat-batian gizon elbarritua osatu-ta ju-an zan.

Ta gizon talde andia bere ondoren

ebala pozez ta atsegiñez elexaruntz joyan.

Parisetarrak au ikusi-ta, asarre bixian jarri ziran, larunbatez zama eroyalako.

Igarri edo eben Jesus tarteko ebillela.

Eta elbarrituagana joan eta ezan eutsoen: «Gaur larunbata da ta, ezin zeinke zeure oetxua eroan».

Niri ba,—erantzun eban elbarrituak— osatu nabenak esan daust: «Artu egik eure oetxua ta abil».

Eta artu egik eure oetxua ta abil» esan daustanori; ¿nor dok?

Elbarrituak begiratu biar izan eban inguruetara, baña ordurako Jesus gizon taldetik aldendu zan ta ezekian zer erantzun.

Gero Jaungoikuari eskerrak egiteko elexaratu zanian, Jesus'ek ikusi eban eta esan eutson:

«Begira; badakizu osatu zaitudala; ez ba geyago obenik (pekaturik) egin; gauza txarragoren bat gertau eztagizun. Orduan pozarren joan judarrakanā ta Jesus'ek osatu ebala esan eutse. Baña judarrak Jesus'en aurka jarri ziran olango alatzak larunbatez egiten ebazalako.

* * *

Begira euzkaldun maitia, oben-zigorrrez elbarrituta egoana Jesus'ek maitekiro osatu ebala; gorrotau parixetarren arrokeria, ta elbarritua lez apal ta Jauna'gaz eskar onekoa izaten ikasi egizu.

Gama.



VI' urtia

Amabosterokua

Zornotza 1917'g. Dagonilla 15.ⁿ

80'g zenbakija

Arpidea laurleko bi

GOTEUN ETORKUNDE-OSTEKO

✠✠✠ igandeko goizparkija

baño besterik ezta ixan Jaungoikua onestutekorik?

Eta esan eutsan: Jagi ta zuaz, ba zeure ziñesmenak osatu zaitu.

* * *

Josu - Kristo ebillen Samarija ta Galilea'ko lurrian, eta baserri batera sartutera joyala, urten eutsoen bidera amar legendun edo sarnati, ta urriñetik asi yakozak didarrez: *Josu Maixua, erruki zakiguz.*

Josu'k, ikusi ebazaneko, esan eutsen: *Zuaze, ta agertu zaitzez abadiakana.*

Bidian joyazala, osatu edo garbitu ziran. Euretariko batek, bere buruba gatxez garbiturik ikusi ebanian, bigurtu zan atzera Jaungoikua goraldiaz, ta Josu'ren oñetan auzpazturik eskar andijak egin eutsozan. Samaritarra zan au.

Orduan Josu'k esan eban: *¿Amar eztira ixan garbitubak? ¿Nun dirá beste bederatzijak? ¿Samaritar au*

Jaungoikua'k gura dau bere mesediai eskar ona erakustia; eskarbaktasuna gorrotogarrija da, mesede barrijak egiteko gogo gustija kentzen dau; eskar ona erakustiak, barriz, bijotza gertu iminten dau mesede barrijak egiteko.

Eskar onekuak ba'gara, Jaungoikuak geituko dauskuz mesediak, sarnatijari geitu eutsozan lez, etxera bidaldu ebalá pozez ta atsegiñez berterik.

Mesede andijak zor dautsoguz Jaungoikua'ri, ta auxegaitik biartuta gagoz Beragana'ko eskar onekuak ixateko.

Gure Jauna ongille utsa da; maite ginduzalako ta on egin gura euskulako, ezerezetik atara ginduzan; emon



VI' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1917'g. Iraila 1.º

81'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

JESU-KISTO'REN ALATZAK (MIRARIAK)

(Marc. V. 22-43)

Jesus Gerasa'ra joan eta barriro Galilea'ra itxasoz biurtu zanian, berari urtean ozte asko joan zan, eta ondiño itxazertzean egozala Jairo eritxon Sinagogako nagosietariko bat bere billa etorri zan, eta ikusi ebaneko bere oñetan auspaztu zan. Eta eskabide andiz afen au egiten eutson; Neure alaba askenetan dago: zatoz ba, ipiñi egizu bere gain zeure eskua osatu ta bizi daiten. Onetan amabi urtean gexorik egoan emakume bat agertu jakon eta berau osatu ondoren, izketan egoala, eldu ziran sinagoga nagusiaren etxeko batzuk beroneri zirautziela: Zure alaba il da, ¿zetako ba alperrik nekatuten dozu Irakaslea? Baña Jesus'ek eurak iñoena entzunik, sinagogako nagusiari esan eutson: Ez bildurtu, ziñistea naikoa dozu. Eta ez eutson iñori be jarraitzen itxi, Kepa, Jakoba ta Jon Jakoba'ren anayari izan ezik. Sinagogako nagusiaren etxera elduta,

ikusi ebazan bertakoen estutasuna, negar andi, ta alaruak, eta barrura sartuta esan eutsien: ¿Zer dala ta ainbeste estutasun eta negar egiten dozue? Neskatillea ezta-go, ilda lo baño; eta berari irri-egiten eutsoen ilda egoala ondo ekielako. Baña Jesus'ek gustiak etxetik atara ondoren, aita ta ama ta beragaz egozan iru ikasleak artuta, neskatilla etzanda egoan tokira sartu zan. Eta eskutik elduta esaten dautso: TALITHA CUMI; au da: Neskatilla, jagi zaite (neuk agintzen dautzut). Bat-batian jagi ta ibiltzen azi zan neskatillea, amabi urte duna zan ba: guztiz arrituta geratzen zirala. Baña Jesus'ek oldarki iñori be ez esateko agindu eutsen, eta esan eban neskatilleari jaten emoteko.

Ikasi kistar euzkelduna, sinagogako nagusia lez uste biziak Jainkuari zeure eskariak egiten; ta baita zeure geide edo projimuari Jesus'en antzera atsekabe aldietan lagundu, ta zeure inguruan zoriona zabaltzen.

MANTEROLA.



Praka batzuen edestia (historia)

Mutikotxuëntzako.

Neguko egun otz ta ituna da. Zubi barriaren alde batean lagun talde bat dago artega burdi batzuk igaro arte. Euron artean bat besteak baño nasayago agiri da bere inguruan jazoten danen begira, ta bere begiak esarten dautzoz zubi ertzean zutik egoan eskeko bateri. Aldamenean zutik eskekoari begira-begira amar urteko mutiko bat agiri da. Arpegi bizia, bere begi andiak zabalik, uleak bananduta, soñeko zar-zarrak ta esku bata sakelean sartuta daukola, zerbait oldozten dagola dirudi. Bat-batian txakur txiki bat sakeletik ataraten dau, une baten berari begiratu, ta espanak batuta agur egingo ba'leuskio lez eskekoari emoten dautso.

Giza taldeak ardura barik aurrera jarraitzen dau.

—Ara emen umetxu bat aberatz askori ikasgai ederra emoten dautzena (esan eban bere artean begira egoan gizonak); jarraitu dayogun.

Berrogei bat orkarte edo pausu aruntzago mutikoa beste eskeko baten aurrean geratzen da. Bere eskua barriro sakelean sartzen dau, ta apur baten zerbait oldozten lez egonda, beste txakur txiki bat

atarata, eskekoaren kapelara botatzen dau. Gero bere eskuak igurzten ditu, jamaitu dozak! esaten lez, ta bere bideari jarraitzen dautso. Begira egoanak deitu ta itanduten dautso leunkiroy zergaitik ukar edo limosna emon eban.

— *Neure prakentzat da,* — erantzun eutson mutikoak oso-osoan, berari begiraturen eutsola. Aldean daukodazanak guttiz sarrak dira: begiratu egioezu. Eta andra batek, egin dautsodan zeregin bategaitik, txakur andi bat emon daust eta bera eskekoeri emon dautset. Ukar edo limosna onek praka barriak emongo dautzaz. Mutikoak itzok bene-benetan ezan ebazan ta entzun ebazana etzan barre egiten be asartu.

— Baña ene seme: eure txakur andia eskekoai emonda: ¿zelan uste dok praka barriak emongo dautzazala?

— Eztakit baña, kistar ikastira joaten dan neure arreba Andone'tsuk esan daust: *eskekoak Jainkoak bialduak dirala, eta ukar edo limosnen bat egiten jakenean, geure bearrizan gustien barri Jainkoari emoten joaten dirala;* alan ba neu be itxaroten nago.

Itz oneik entzunda gizona biotz samurtuta geratu zan. Ta mutikoari eskutik oratuta esa eutson:—Zuzen ago ene seme: Jainkoak zeren bearrizanian agoan bai-yakik, ta neu bialdu nayok euri praka barriak erosteko. Eroan eban denda batera ta burutik oñera soñeko barriak erosi eutsozan, Mutikoa, alantxe izan bear ebala ta, ez zan arritzen: ta soñeko barria jantzi ebanean bere ongillari eskua estutu ta bere begi ederrakaz begira-begira jañita esan eutson ¡Jainko oña, eskarrik asko!

Egia da Jainko'agan uste osoa ipinten dauna, eztala esku utzik geratuko.

(Silvain)

Jazokun jakingarria

Europa'ko baster guztietan eriotza, triskantza, ta negarra zabaltzen dauzan guda baltz, onetan, gustia ezta baltza, Kistar biotza poztuteko gauza pozkarriak be ba-dira; ta onetariko bat ementxe ipinten dogun jazokun eder-ederrau da.

Gudaketa gogor baten, sabela zupin-jaurtiki (bala) batek zatituta gudari-buru bat lurrera jausi zan. Urgazteko' laguntzeko gogo biaz urreratu jakon gudari bat, baña maitekiro adierazo eutson alperrik zebilela, nai ta ez il bear ebala-ta. Gauza batek bakarrik tamaltzen nau, esan eutson Geure Jauna artu barik il bearrak.

Zauritu gixajoa, beste askok lez bizitzaren opalkuntza aberri-aldez egin eban jaupari (abade) bat zan. «Baña, jarraitu eban eskarrau eskatzen dautzut; lenengoz eretija dozunian neurē gogo-aldez Jaunartzeko» Berari laguntzeko urbildu jakon gudaria paristar siniste bako ta urte askotan Elexatik aldenduta zegoana izan arren jaupariaren itzakaz biotz-ikututa geratu zan. Ta eskatzen eutzona egingo ebala agindu ez-eze, apaltasun andiz bere oñetan auspeztuta, bere bizitza gaiztoaren autorkuntza egin eban il-agiñean egoan jaupariagaz. Jauparia absoluziño edo azkitza emon eta bertatik il zan.

Eta zupin orroyak basterrak ikaratzen ziarduen artean, Jesus'en jarraitzale sutsu ta abertzale onaren gogoa zeruratu zan.

Gama.





VI' urtia.
Amabosterokua

Zornotza 1917'g. Iraila 15."

82'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

JESU-KISTO'REN ALATZAK (MIRARIAK)

(Luc. V. 17 - 26)

Kapharnaum'go elbarritua osatzen dau

Jesus egun baten jarrita irakasten egoan. Eta bera lez jarrita egozan Galilea ta Judea'ko alde guztietatik eta Jerosolyma'tik zalatzeko asmoz etorritako Parixetar eta latari edo eskriba batzuk. Eta Jesus'ek bere almen, indarra, agertu eban gexoak osatzen.

Onetan eldu ziran gizon batzuk elbarritu bat oetxo baten ekarrela, ta alegiñetan ebizen berau Jesus egoan etxe barruan sartu ta bere aurrean ipinteko. Eta etxe aurrean egoan giza talde artetik igaro ezinda, igo eben etxe ganera, eta sabaia zulatuta Jesus'en aurrera oetxo ta guzti jatxi eben. Jesus'ek bere ziñistea ikusita esan eutson: «Gizon: zeure obenak (pekatuak) parkatuta daukazuz».

Orduan latari ta Parixetarrak, oldozkun txarrak egiten azi ziran, euren barrurako

esaten ebela: ¿Birao onan egiten daben au, nor da? Obenak azketsi legiz Jainkuak izan ezik?

Jesus'ek euren oldozkunak ezagututa erantzun eutsen: «¿Zeuen biotzetan ze oldozkun darabizue? ¿Gauza errezago zein ete da, esatea: eure obenak azketsita yagozak; ala jagi ta abil? Jakin dagizuen, ba, gizonaren Semeak obenak parkatze-ko eskubidea daukala»; esan eutson elbarrituari: «Neuk agintzen dauskat jagi adi, artu eure gain oetxuori, ta yoadi eure etxera». Ta bertatik, jagita, artu eban bera etxunda egon zan oetxu edo ballarta, ta bere etxera joan zan Jainkoari aintza emoten eutsola.

Au ikusirik guztiak arrituta geratu ziran, eta Jainkua goraltzen eben. Eta itzal edo bildur deunez esaten eben: «¡Gaur bai gauza miragarriak ikusi doguzala!»

* * *

Irakurle biotzeko ori: Jesus maiteari eskar ona agertu egiozu ain argiro bere

Jainkotasuna ta obenak parkatzeko eskubidia parixetarrari agertu eutselako: alatz edo mirariakaz be argitzen ezan parixetarran itxukeria ta biotz arrokeria gorrotau egizuz; ta uste biziuz joan zeure gogo ta gorputzeko gatxetan osagille on eta errukitsu onegana.

MANTEROLA.



Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 16^{gn}. 23^{gn}. 30^{gn}.

Igande gustijetan kistaf orok jaupa osua enzun bial biaf dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK

17^{gn}. Deun-Pantzeska Asis'tafaren Zaurijak Irakundia.

21^{gn}. Deun-Matai, belduba, goizpargilia, jai erditzat zaintzen doguna: Buldadun diranentzat be aratuzte — aragija izteko eguna — barau eguna ez.

Aratuzte-eguna dan afen, koipiaz egosi, efe, txiftxikaturiko beste edozer jan dagikegu,

24^{gn}. Eskafund Ama - Neskutza. Eskafund Ixen onuragin au Ama-Neskutzak beretzat autetsi eban, Barcelona'n 1218^{ga}fen urtian, Kepa Nolasko, Efaimunda Peñafort Deunai ta urijan bakaldun zan Jagoba'ri donokitlk jatsi ta agirturik, mauritafafen menpian jopu ziran kistafak gaizkatzeko, gopatz, ordena barija, irasifeko agindu eutsenian.

29^{gn}. Deun-Mikel - Eskingundia. jai erditzat zaintzen doguna.

Deun-Mikel, gaur ospatzen doguna beintzat, ez da beste deunak lez, ludijan biztaldija igarota, Jaungo-agintza, ta onuak gixagurenki bete ebazalako deun egin zanen bat. Ez; Deun-Mikel gotutza da; beraz, sofik (gorputzik) ez dau. Askaldijan, Goiko-Jaunak Gotutz asko-asko irazan euzan, euraetatik batzuk, gustijentzat imini eban agintzea bete - gura ez da, aropuzturik Jaungo-aufka jafki ziran.

«Goiko-Jauna lakorik nor?» didaf eginaz, afo

aren aufka jafi zan Mikel - Deuna, bera lez, beste ainbat-eta ainbat gotutsek Jaungo-agintzea ziatz betetan ebela.

Aroputzak geiztokiratu ebezan, eta zintzo irauon ebenak Jaunak donokijaz zorundu ebazan,

Euzkal-Erijan Mikel-Deunari eraspem andija yako, batian bestian. bere goretsiz iragifa diran eftxadon, basotxano, opafijak dikufen lez.

Zeu be, bere zale-zale ixan zadiz, erijotzaldijan zure gogua Jaunari aufkeztu-biaf dautsona bera dala ez aitzu; Doibatzak ilotoyetan egifen dautson otoa safi egitsozu: «Antziña Abafan eta bere onordekuai eskini zeutson argi deunara gure goguak Deun-Mikel Ikufundak aufkeztu bediz».

Jokin.



Kistar - Tkasti atzalbena

Jainko-Legeko bigarren agindua

II

Jainkoa' ren izena itzalez ta maitekiro aiatu.

—*¿Noz aitatzen dogu itzalez ta maitekiro Jainkoa' ren izena?*

—Jainkoa' ren izena 'tzalez ta maitekiro aitatzen dogu: 1.^o gure Jauna ta Aita deitzen dautsogunian. Juda'tarrak ez ziran Goikoa' ren izena aoz erabiltzeko asartzen. Lege zarra mendekorra zan: lege barria, eskar-lege, seme legia, maitekor ta errukiorra. Beraz semekiro erabilli biar dogu gure Aita Goikoa' ren izena. Jesu-Kisto'k «Gure Aita Goikoa»n, irakatsi euskun, Jainkoa' ren izena done-tsi dedilla, gizon gustiak deuntzat (santutzat) euki dagiela eskatzen.

2.ⁿ Jainkoa' ren ala ta nagositasuna go-retsi ta elestutzen (alabau) ditugunian, aunela egin eben iru mutillak Babilon'go

Sinieste Sendoa

Mutikotxuentzako ta.... ez tiranentzako be bai

Beti izan dira kistar ziñiste sendodunak, ziñiste-aldez euren odola pozik ixuri dabena, ta Jauna'ri eskerrak aldi onetan be ba'dira inun, eta Apirka'n! Europa'ko kistar *zibilizauai* irakaskintza ederrak emoten dauskuezanak.

Emen ipiñiko dogun edestiau, sorgin-aldikoa ezta; gaur egunekoa da: 1886'ko Orrilla'ko 22'n jazorikua.

Apirka'ko laterri baten zan. Bertako bakaldun edo erregeari Mouanga eritxon. Egun baten bere inguruko baten onu txar bat ontzat artuta, bere menpekoen artean ugarituaz joyazan kistarren kaltez erabagi gogor bat artu eban. Guztiak burua ebagiteko epaya emon eban.

Lenen il bear ebana Josebe Mkasa zan; irribarrez joyan, eta, eskuak lotuten eutsozan artean, bere erailleari itz onek esan eutsozan: Mouanga'ri esayozu, guztiz txarto egin daula nire kaltez epaiatu emotia, baña biotz-biotzez parkatzen dautso-dala. Eta bere burua aizkoraz ebateko makurtu eban.

Eta erregearen otsein guztiak bilduta egozala, Mouanga'k esan eutsen: «Otoi egiten daben guztiak neure eskumaldian jarri deitezela». Bat-batian kistar guztiak eskumaldian jarri ziran. Talde bitan ipiñi ebazan, batian txikitxuak eta bestian amazortzitik ogetabost urterañoakoak. Biñan-biñan lotu ebazan, eta estu lotu be alkar bultzau barik ibilli eziteko eran, eta gatzetxuok euren urrean ebillen eriotzaren ardura andi barik, alkarren tayuari begiratura barré egiten eban.

Orduan bakaldunak Bouzabaliao eritxon bateri deituta itandu eutson:

—Kistarren buru eu ete az?

—Kistarra bai-naz: baña euren buru

deitzea ez dagokit, — erantzun eutson.

—Ba, beriala ilgo augu.

—Oueraba, jagur! — erantzun eban — zure aldez otoi egingo dot.

Beste barik otseinen nagosia apurka-apurka bizirik erre eban.

Eta enparauak erretako egur metak gertuten ebazan artean erailleak esan eutsien:

—Geyago otoi rik eztozuela egingo esan egizue; ta Mouanga'k beste barik azketsiko dautsue.

—Ezelan be ez:—erantzun eban—bizi garan artean otoi egingo dogu.

Banan-banan egur meta barruan sartu ebazan. Bat egoan ondiño azke ta beratu eraille (verdugu)-aren semetxua zan. Aitak besteai egiten eutsenagaz bildurtuko zalakoan azkenerako itxi eban. Baña mutikotxua sendo egoan, ez zan ikarartzten, bera etxun zan egur ganean eta esan eban: «Oueraba, jagur ene aita!»

—¡Ator ene seme,—esan eutson aitak —neuk gordeko aut neure txoznan: eta iñok ez au ikusiko.

—Aita—esan eutson umetxuak —nik eztot gura eskutetarik, eta otoa izteko asmorik be eztaukat. Ganera, zu erregearen otseña zara ta eskutetan ba nozu ilgo zaitue. Baña, ene aitatu, suari bildur andia dautsot, eta arren il nagizu ixiotu baño len.

Erailleak menpeko bateri adierazo eutson eta aldendu zan. Lagunak artu umetxua ta lepo-azurra ausi eutson. Bere artean esan eban: «Beñik-bein suaren neke ikaragarritik azke dago».

Orduan su tzarrak biztu ebazan eta inguru guztiak kez bete ziran. Negar ta garrasi bat be ezan entzun ¡Bakar-bakarrik ogetamalau gazte zintzoen otoyen zuru-murrua eltzen zan inguruko belarrietara! ¡Ziñiste sendoaren indarra! ¡Kistar nagi ta epelok ba'daukagu zer ikasi!

Gama.



VI' urtia

Amabosterokua

Zornotza 1917'g. Urrilla 1.ⁿ

83'g zenbakija

Arpidea laurleko bi

JESU-KISTO'REN ALATZAK (MIRARIAK)

Esku igartua osatzen dau

(Luc. VI).

(Marc. III).

(Mt. XII).

Judatarren jai-eguna larunbata zan. Orain igandea lez Jaunak aginduta eukan berari eskintzeko, arazo guztiak alde batera itxita. Parixetarrak euren burukeriz, beste agindu asko lez au be, astunegi egiten eban; gexoari laguntzeko, azur ausi bat atonduteko, euli bat ilteko be lanik ez zala egin bear irakatzita. Ta beste onango barregarrikeri asko. Jesus'ek legea zaintzen eban parixetarren barregarrikeriai jaramonik egin barik, baten bat osatu edo eskarren bat egin gura eutsonian. Au dala-ta parixetarrak asarratzen ziran ta Jesus'en kaltez eukan zeresanik andiena izaten zan geyenez, larunbata ez ebalazaintzen. Auxe jazo zan Galilea'n egin eban alatz onegaz be.

Jesus sartu zan larunbata baten Sinagan eta irakasten azi zan. Bertan eskumako eskua igartuta eukan gizon bat egoan, ta latari edo eskriba ta parixetarrak zelatatuten eban, larunbatez osatuko ete eban, zeozertzaz bera salatuteko.

Parixetarrak maltzurkeriz beterik, Jesus salatuteko akiakulaen (atxaki)bat euki gurarik, itanduten dautse: Larunbatez osatutea: ¿zillegi (licito) ete da? Orduan Jesus'ek esan eutsien: Itaun bat egin bear dautsuet: On edo kalte egitea zillegi ete da larunbatez? gizon bateri bizia gaizkatu ala kentzea? eta jarraitu eban: Zuen artean ardi bat dauken gizonik ete da, berau larunbatez zulo batera jausiko ba'litzakio jagi ta atarako eleukenik? Ba izenbat aldintsuago da gizona ardi bat baño! Zillegi da,ba, larunbatez on-egitea.

Eurak ixilik egozan; eta orduan Jesus'ek sumiñez beteko begiak ezarri, ta euren biotzeko itsukeriak tamaltzen ebalaz, esan eutson gizonari: Luzatu egik esku ori. Luzatu eban eta guztiz osatuta geratu

yakon. Baña eurak amurruz bete ziran' eta andik urtenda herodiatarrakaz batu ziran Jesus galtzeko bidien bat asmetako.

Irarkurle: Jesus argia berbera da: ta argiak begi osasundunak atsegindu ta sendatzen ditu: ta begi gexoak gexoagotu ta minduten ditu ta argiagandik aldentuteko aleginduten dira. Auxe jazoten zan parixetar biotz gogorrekoakaz. ¡Zoritzarrekoak geu be onangorik iñoz gertatzen ba'ya-kul!..

MANTEROLA.



Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 7'gn; Agurtzadun Ama-Neskutza; gaur ainbat jauretxetan, atzo eguberbiko amabijetan asi ta gauko gaberdirarte, autortu, jaunartza egin dabenak ikerkun bakotzeko nekazka—parkamen—osua irabazi dagikie. Porziunkula-nekazka atzaldur gabanian esan geban lez; 14'gafenian.

Igande gustijetan kistar orok jaupa osua entzun - biar dogu ta otsein - lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK

1'gn. Gotzon Zaintzaliak

4'gn. Asistat Deun - Pantzeska, autoflia, gopatz - iraslia.

8'gn- Begoña'ko Miren - Deuna, Bizkai - Zaintzale Nagosija.

Jai au erijarentzat ufengo igandian ospatzen da.

Gotzonaganako eraspina ludijan beti ixan dala desakegu. Josu-Kisto'k irakatsi arte baña, gixon bakotzak bere gotzon-zaintzalia ebala, ez zan jakin eta ez zan beraganako eraspelik.

Gotzon jaya batian-bestian kistafak esatera-ko lenengokotatik egiten eben, toki gustijetan egun baten egiten ezpa-eben be.

Gure erkijan Epala'ren lenengo egunan oi-da.

Gotzon Zaintzale-jaya baña, boskarren Paul Doipurubak ila aunen bigaren egunerako ixen-

dau eban, eta Doibatz gustijak ordubantxe ospatzen dau.

Beraz, gotzon-zaintzaliaganako eraspina su- tuagotu, geyagotzeko egun egokija da berau.

Gotzon Zaintzaliari gustijok zor asko dautsogu, Bernarta Deunak diñoenez, bere deundahun, bikaindashun, aldindahun eta egikixun; egin daskuzan onura gafantsitsubak, egiten daskubezan eta legiskegubezanak, urteroko opakixun, jai, goreskuna eskatzen dabe. Urtorokua gitxi dala egunoro zerbat egikezu, ila aunen bigafenen zerbat geyagotuta,

Saspi dira Jaunaren urbilago donokijan diran gotzonak.

Gixon sentsundun askok desanez, Jaunak Amada Deunari saspi gotzon nagosi aunen ixenak agirtu eutsazan, eta dira: *Mikel, Gabirel, Erapel, Uriel, Jendiel, Barakiel, Seratiel.*

Donokijan diran orok—ugari-be-ugari dira—zeure zaintzaliak batez-be, biar dozun eraz, jaban zagikezala.

Jdkin.



Kistar - Tkasti atzalbena

Jainko-Legeko bigarren agindua

III

Biraua

—*¿Zer ete da biraua?*

—Biraua, Jainkoa'ri edo bere Deunai iraintsu yaken esakuna da. Birau egin gengike gogoz, itzez, ziñuz ta egikunez.

—*¿Nortzuk egiten dabe birau?*

—Birau egiten dabe: a) Jainkoa'ren izen itzaltsua edo Deunena, esakun zikin nazkagarritz aomustartzen dituenak.

g) Ziñuz ta izekaz Jainkoa'ri deitzen dautsoenak, Judatarrak Jesukisto gurutztiltzatuari lez: *Buruai erainda, esaten eben; Jainko Semia ba'da, gurutzetik jatsi bedi, bere burua gaizkatu begi, ta Bera'gan ziñestuko dogu.*

X Pi Doipuruaren

Motu propio

Ereserti deunatzaz

I

ASKUN OROKARRAK

Jafaipeña.

1.—Ereserti deuna Jaupakera dotoldunaen zati ornigarria lez, guen beraxegana zuzentzen da, au da, Jainguaren Aintza ta kistarren deuntasun eta onera. Eresertiak ba lagundu biar dau txadonan uzkuertz jayen ederkune ta distitasuna geitzera, bere zeregin lenena dalako Jaugurkera edo *Liturgiako* itzak eresindasunez (*melodiagaz*) apaintzea, itz euroi indar bixi bat iratzirik, bitarte orrekaz eskututs deunaren eskar igaliak artzera kistarren donespena obeto igitu ta gerutu dadintzat.

2.—Beraz, ereserti deunak, Jaugurkera beraen zeindasunak malla goyenan biar dauz euki: yakiterako: *deuntasun eta ontasun tayukeran* eta ortik beraukauten lez jayotzen dan beste bat: *Orokartasuna. Deuua* ixan biar ba-da, naitenaiez kendu biar yakoz jolaski antz gustiak, ez berari bakarrik, baita abeslariari be, jolas ereserti antzera abestu eztayen.

Ixan biar da baita egiz *ona*. Doibatzak bere Jaupakeran eresertiari lekua-emonik dapinken asmuaren onurea sortuko badau entzuten dabenen goguan. Orrekin batera, barriz ixan biar da *orokarra* edu onetantxe: erri gustiai laketu arren uzkuertz-ereseipenan (*konposiziñoan*) euren gogo tayu berarizkua be irarriten, alan da gusti be, tayu berarizko orrek ereserti deunaren tayu orokarrai menbetuta

egon biar diraz, beste aberri batetik etorritako edozein kistarri, entzutian sotin ona bere gogo barnan eragin dayon.

II

ERESERTI DEUN MUETAK

3.—Zeindasun aitatutakuak gergorar abestian mailla gorenean idorotzen dira, beraugaitik antziñako asabakandik jaruntziko erromar Doibatzaren abesti bakar eta bere-berea orixe ixanik; orixe da gixaldien ibilian Jaugurkera Lagitegian arduraz zaindua, orixe Jaugurkera zati batzuetan utsaro egiten dana, ta orixe ikaspen oraintzuenenguak bere garbitasun eta osotasunean zorunez berrirasi dabena. Zijo onekaitik gergorar abestia beti ixanda ba eukia uzkuertz eresertiaren eredu egiñena lez, jarri al-ixanik bere aintzan arau orokar auxe: *Uzkuertz eresipen bat ainbat ixango da deunago ta Jaugurkerakoyagua zeinbat geyago gergorar eresindasunei urreratzen yakon eres-jas, eres-irudi ta eres-miukian; eta ainbat gixiango ixango da txadonaen gai, zeinbat buru-eredu onekin atzau daguan*. Orrela ba, antziñako gergorar abesti zarra gurtze dotoldunetan zabalero berjarri biarko da, yakin egiñik uxkuertz zeregiñetan gergorar abestia baño besterik abestu ezarren, eztabela euren dotoltasunan ezerbe galduko.

Ardura-ein ba, batez be, erria itzuli daiten gergorar abestia oitzeko ekandua barriz jariztera, ostera be kistarrak antziña lez jaugurkera-inarkunetan alde-artu dagijantzat.

4.—Aboska askodun abesti onian, gogorago esaniko zeindasunak, malla gorenan aurkitzen dira, batez be, Palestrinañ Kepa Ludobiko'en lanakaz XVI gn. gixaldian Erroma'ko irakastolan ornipen gallurrara eldu zan abesti aboskatsuan.

Geruago be eresipen bikaiñak iramoten (produziuten) jarraitu eban. Aboskatsu abesti onena naikuan urreratzen yako gergorar abesti, ereserti deun oroen buru-ereduari, ta zegaiti origaitik, Doibatzaren txadonkixun nausietan gergorafen onduan leku-eiten yako bestiari, doipuru-txaofuan egin oi-diranetan lez.

Beraz, baita ereserti au be uzkurtz elizkixun aundietan berjarri biarko da, beintzat txadon nausietan, gotertxadonetan, jaupagai ikastoletan eta lekaro-etxietan biar dan gustia euroetan errez idoro oidalako.

5.—Doibatzak aldi gustietan ertiaren aurrerakintzak ezautu ta ugaritu dauz, adimen andiak aurkitu dabezan gauza on eta ederrak ontzat arturik, Jaugurkera lagi kaltezkua ixan ezik; orregaiti, Doibatzak ereserti barbarria (moderno) be abetaldu dau, bere ereseipenen artian daukozalako, uzkurtz-jai dotoldunen gaige ezelan be eztirazenak Orraitiño ereserti barbarria jolastarra dan lez, axola aundia-kin artua ixan biar da txadonetan, ezer euki ezta yen beragan edo bere eikeran kirol usain eta antzekua.

6.—Ereserti barbarriaren mueta askoren artian, gitxien egoki dagartzana gurtze jardunetan, antzokikoa da; igarotako gixaldin, batezbe Italia'n, auferengo erabilli dana. Beorren ixamenez da ba ereserti mueta ori, gergorar abesti ta aboskatsu onaren arerio nausiena, ta beraz, ereserti deun eta on gustiena be bai. Gañera, mueta orren tayu, eresineurri (ritmo), ta beste gauzak, Jaugurkerakide-eresertiaren eskakixunakiu eztaortz ondo, gaizki baño.

(*Dafaike*)



Zoriona izen ona lez da, oso zaila irabazten eta erraza galitzen.

EUZKELDUN GOTZAIN BARRIJA

Egunoroko izparringijetan irakurrita, onez-kero gure irakurle gustijak dakije, Mujika'tat Matai, Gazteiz'ko jaupari - ikastetxeko irakasle argija, Burgo de Osmako Gotzaintza'rako autua ixan dala,

Izpar aonek poza ugari zabaldu dau euzkal-erri gustijan, Mujika jaunak gure artian ezagun eta aizkide asko dauko - ta.

JAUNGOIKO - ZALE' kuak geure poz au agertu barik itxi ezin geinke: Gotzain barrija euzkelduna dalako, ta gure Bazkunia - iraskaldijan asko lagundu euzkulako.

Boakijo, ba, geurebiotzetiko zorion - agurra; ta, gure artetik aldendu biar dan arren, ez gaizala aitzu berak, geuk be aitzuko ez dogu - ta.



ITAUN - ERANTZUNAK

Belauniko.—Gure erriko eleizan, Jaunartu ondoren, batsuk ez dira belaunikotzen; beste batzuk belaun biakaz beya yoten dabe ta burua makurtu; ta bestiak belaun bategaz zzeintzuk dagoz zuzen?

—Eskumako belaun bakarras lurra joten dabenak. Bai dirudi efitzakela belaunikotu biar Gure Jauna aldian daruagulako; baña Eleiza'ren gogua da jaupariak agirian daukon Jesus'en Gorputzari, belauniko egitia. Beraz gaurtik eskumako belaunaz lurra jo eikezu.

¿Neska zar ala eskondu?—Ao bizarrrik ez dozu orraitino itaun ori egiteko. Zuk uste dozun baño garrantzitsuagoa da. Ez ba txantxetan artu. Garbizaletasunez neska gelditzen dana, naizta lekaimetzarako (monjatzako) deirik izan ez, eskondua baño gorago dago. Paul deunak erakusten dausku. *Eskontzen danak ondo egiten dau: eskontzen ez danak — Jainkoarren — obeto.* Zeruko neskutzak gotzonak dira; ta ludiko gotzonak neskutzak (*Aubortud*). Beste asmo batsuekaz eskontzeke gelditzen ba'dira... enua gaurko ezer esaten.



ITAUN - ERANTZUNAK

Belauniko.—Gure erriko eleizan, Jaunartu ondoren, batsuk ez dira belaunikotzen; beste batzuk belaun biakaz beya yoten dabe ta burua makurtu; ta bestiak belaun bategaz ¿zeintzuk dagoz zuzen?

—Eskumako belaun bakarraz lurra joten dabena. Bai dirudi elitzakela belaunikotu biar Gure Jauna aldian daruagulako; baña Eleiza'ren gogua da jaupariak agirian daukon Jesus'en Gorputzari, belauniko egitia. Beraz gaurtik eskumako belaunaz lurra jo eikezu.

¿Neska zar ala eskondu?—Ao bizarrik ez dozu orratiño itaun ori egiteko. Zuk uste dozun baño garrantzitsuagoa da. Ez ba txantxetan artu. Garbizaletasunez neska gelditzen dana, nai-zta lekaimetzarako (monjatzako) deirik izan ez, eskondua baño gorago dago. Paul deunak erakusten dausku. *Eskontzen danak ondo egiten dau; eskontzen ez danak — Jainkoarren — obeto.* Zeruko neskutzak gotzonak dira; ta ludiko gotzonak neskutzak (*Aubortud*). Beste asmo batsuekaz eskontzeke gelditzen ba'dira... enua gaurko ezer esaten.



VI' urtia

Amabosterokua

Zornotza 1917'g. Urrilla 15.^o

84'g zenbakija

Arpidea laurleko bi

JESU-KISTO'REN ALATZAK (MIRARIAK)

Luc. VIII-Mc. IV-Mt. VIII.

Ékatxa barefuten dau

Tiberiades'ko itxaso aldakor eta bildur-garria da, bare-bare dagola be sarritan bat-batian ekatx andiak sortu ta bertan dabiltzanak galtzori edo arriskuan ipinten ditualako. Hermon deritxon mendi gallurretatik jasten dan axe indartsuak sarritan ikaragarriki artegatu ta naspiltzen dau. Auxe jazo zan Jesus'ek - eta igaro eben baten.

«Egun baten Jesus bere ikasleakaz ontziratuta esan eutsen: — Itxasoen beste alderdira igaro gaitez. Urten ziran ba, ta itxastatuten joyazala atze aldean aur-diko baten gain Jesus'ek lo egin eban. Onetan axe indartsu batek uin (olatuak) naspildu ebazan, ontzia urez bete artera-

ño, barrukoak galtzori andian ipinten ebazala. Orduan Beraganà eldu ta iratzartu eben esanaz: Jauna: gaizkatu gaizuz, galduak gara-ta. Eta Berak jagita axea zematu eban eta itxasoari esan eutsen: ixildu adi: baretu adi. Ta bat-batian axea gelditu ta baretu zan. Orduan Jesus' ek esan eutsen: ¿ziñiste gitxidun gizonok: zeren bildur zarie? Baña eurak bildurrez beterik, bata-besteari arituta iñotsen: ¿Aunor da? axeari ta itxasoari agindu ta menegiten dautsie».

* * *

Kistar biotzekua: ludi (mundu) onetako gaiztakeri-itxasoan be, girna txarren axeak sarritan naspildu ta geure gogo gaiztatori edo arriskuan ipinten dau: estu aldi oneitan uste bizia Jesus'egan euki daigun, eta biotz-biotzez esan dayogun: «Jauna, gaizkatu gaizuz: galduak gara-ta» bere laguntza eztausku iñoz ukatuko.

MANTEROLA.

X Pi Doipuruaren

Motu propio

Ereserti deunatzaz

(Jarraipena)

III

JAUGURKERAKO ELIA

7. Erromar Doibatzaen elia latelia da; ta augaitik, jaugurkerar egikixun dotoldunetan erri-elian deusen bat abesautia, gebenduta dago; atan be Jaupa ta Deun-Otoyaren zati aldakor edo beti bardiñetan.

8. Jaugurkerar iñarkun bakotxerako eraldu biar diran itzak eta urrengorik-urrengo abesau biar diranak ixentauta egonik, gerpen ori ausitia, edo aldatutia, edo norberen gurari utzez itz aginduak beste batzuekaz ordeztia, edo osoz edo zatiz izkatu edo *efezitau* baga itxitia jau-

gurkera kaltez, ezta laketua. Baña Doibatzaen oipenez Jaupa dotoldunen *Benedictus* ostian, Ikurteun - Gustiz - Deunari abestiño bat abesautea laketua da. Jaupa beraen *ofertorio*'tik *prefazio*'rako garaiyan Doibatzak zuzenetsitako itzakaz, abestiño bat abesetia laketuta dan lez.

9. Jaugurkera itzak idaztietan dagozan letxe abesau biar dira, itzen itzulazpen eta bier eztan bebesapen baga, izkiñak aldendu baga, ta doniak beti errez ulertuteko bestian.

IV

ERESEIPEN DEUNAREN ATETIKO EREA

10. Juupa ta Deun-Otoyaren zati bakotzak, Doibatz irakatsi zarrak damotsiezan uste ta ereak eta gergorar abestian ondo agertuta dirautenak, eresertiro jabor biar dabez; beraz, *introitus* bat, *grudualis* bat, *antiphona* bat, *himnus* bat, *Gloria*

in excelsis bat eta abarrak, eresalduteko ereak askotarikuak dira.

11. Aunetan urrengo arauak jagon beitez:

a) Jaupaen *Kyrie, Gloria, Credo* ta abar, euroen itzai yagokan ereseipenaen, (konposiziño) batasuna euki biar dabe. Orrelaz ba, zati banakuetan, bata bateriko ereseipenaz eta bestia besterikuagaz eresaldutia, eztago ezelan be bide-onez laketuta.

g) *Bespereta* Deun-Otoyan *Ceremoniale Episcoporum*'aen aginbenak geyenaroz jarraitu biar dira, ta berak *salmodia*'rako gergorar abestia dagintza, ta *Gloria Patri* ta *himnus*'an ereserti irudiztua be laketzen dau.

Alan be, elizkixun dotoldun nausietan, gergorar abestiakin abeskidetasuna edo *contra - punto* deitutako morduak aldizkatzia laketua da. Baita noiz edo noiz ixan leiteke laketua abeskizta edo *salmo* baktxari eresertia osoro ipintia, ereseipenak abeskiztai yaokan eria zaintzen badau; au da, begitanduten ba-da abeslariak abesauten dabezala alkarren artian abeskiztak.

Baña, ereserti mueta askodun (*de concierto*) deitzen yakuen abeskiztak, gependuta betirako gelditzen dira.

k) Doibatzaren ereserki edo *himnus*-etan ezpeitez galdu euroen era zarrak. Beraz, eztago laketuta, esate-baterako, *Tantum ergo* lenengo atalak *romanza, cavatina* edo *adagio* era baratza eukitea, ta *Genitori*'k osteria eukitea *allegro* era bizkorrena.

y(*Vespere*'tako abesaurrekuak (*antifona*) eurena dan gergorar eresindasunaz geyenero abesauak ixan biar diraz; barriz jazokun berarizkoen baten eresertiagaz abesauko ba-litzatekez be, eresertak eurei yaokan antza ta eria ezteutiez iñola be kenduko, beste abesti batzuena ekarririk.

ABESLARIAK

12. Txaunesgiñen edo *organuaen* ezetaiko laguntasun бага, beti gergorar eresertian abesau biar diran jaupa esale ta laguneillen eresindasunak ixan ezik, jaugurkerar abestiaren ostantzeko beste gustia abestokiko *levitarrena* da: onelaz. txadon-abeslariak *abadeak* ez izanagaitik, eurek ba-lira lez, txadon eres-egimen ori, egokiro dagite.

Beraz, eresauten dan eresertiak, edolabere zati nausietan, taldako edo mordozkako eresertiaren endatasuna euki biar dau.

Aunegaz ezta aditzen, bateko edo *solo* abestiak zigaro kentzia; esan gura dabena da, jaugurkerar itzen zati geyenetan talde-abestia erabilli biar dala, ta bakar-abestia unada laburretan, bakarrekuak taldakua itoko eztaben bestian, eta euren arteko eresindasun barrukuak eskatzen daben giñuan. Geyagorik ez.

13 Askun beorretik ataratzen da, abeslariak txadonan jaugurkera arazo bat beteten dabela; ta augaitik, ixanik emakumiak egimen ori betetzeko gaigiak, tarteko iaxteko abeslari-batzen ezin daitez abetaldu. Ta baldin nai ba-dira euki aboska soli-orrak, antziña - antziñako Doibatzaren oipenez, ume - mutilkuenak ixan biarko dira.

14. Azkenez, ez yakue ereserti-batzetan lekurik emon biar, betetzen daben egimen deunaren gai dirala darakusten gixon uzkurtzale ta bixi artezdunai ez-pa - da.

(*Darraike*).

Guzfiak zorionaren billa dabiltz, baña aurkitzen dabenak izenbat dira?



VI' urtia

Amabosterokua

Zornotza 1917'g. Azilla 1.^o

85'g zenbakija

Arpidea laurleko bi

JESU-KISTO'REN ALATZAK (MIRARIAK)

URA ARDAO BIURTZEN DAU

(Joan, II. 1-11).

Gure Jauna bere ikasleakaz Jordan aldetik Galilea'ra biurtu zan: Kapharnaum'era joyan. Irugarren egunian Kana eritxon errira eldu ziran. Bertan aurkitu eban bere Ama Maria zoruntsua, eztegu batera etorrita. Kana, Nazareth eta Tiberiades bitartean dagon erri polit bat da. Egiz (mendiz) inguratutako lur-aldea eida, ta gustiz emokoya. Erri au egi baten eskegita lez dago. Ementxe egin eban Jesus'ek lenengo alatza. Ara emen Jon deunak edestuten daben lez.

«Iru egun barru eztegu batzuk egin ziran Galilea'ko Kana'n. Bertan egoan Jesus'en Ama. Jesus'eri be bere ikasleakaz eztegura dei-egin eutsen. Eta ardao barik geratu ziran, eta beren Ama'k esan eutson Jesus'i:—Ardaorik eztauke. — Je-

sus'ek erantzun eutson: — Emakume, ¿Niri ta zuri zer dauku? Ondiño Nire aldia ezta eldu. — Orduan bere Ama'k otseiñeri esan eutsen: — Berak esango dautzuena egizue. — Bertan egozan arrisko sei urontzi, judatarren garbitzerako oi ziranak, baktotxa *metreta* bi edo iruen neurrikoak, (*metreta* baktotxak kantara bi inguru edo eukazan). Jesus'ek esan eutsen: — Urontziok urez bete egizuez. — Eta ertzeroño bete ebezan. Gero esan eutsen:—Orain atara ta mai-zañari eroan egizozue. — Eta eroan eutsien. Mai-zañak ardao biurtutako ura txastatu (probau) ebanian, nongua zan ezekiena lez, atara eben bere otseñak jakin arren: gizon-gazteari deitu ta esan eutson:—Guztiak lenengotan ardaorik onena ipinten dabe, ta gero, naikotxu edanda dagozarian, txartxuagoa ataraten dabe, zuk barriz ardao ona azkenerako itxi dozu.

Onantxe Galilea'ko Kana'n egin eban Jesus'ek lenengo alatza: eta bere aintza (gloria) agertu eban: eta bere ikasleak Beragan *geyago* ziñistu eben».

Irakurle: Ura ardao biurtzean Jesus'ek bere al-gusti, bere ontasun eta biotz-zabala agertu eban. Baita be bere Ama'ren bitartekotasun altsua. Ama'k eskatu ezpa-eutson ezeban egingo, dirudienez, alatzik. Berak oartu eban ardaoen bearrizana, ta bere Seme Jesus'gandik lortu eban on-on eta ugaria. Ama errukitsu au ipiñi daigun geuk be bitartekotzat, Jainkuaren eskar barik iñoiz aurkitu ezkaitez.

MANTEROLA.



Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 4'gn. 11'gn. Deun Martin, go-tzaña, autoflia.

JAI OSUAK: 1' gn. Deunoro, donokijan diran gustijen gomutaz jayeguna.

Igande ta jai gustijetan kista' orok jaupa osua entzun biar dogu, eta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK

2'gn ilaren lenengo barikuba.

Ilaren lenengo bederatzí bariku ja'atubetan, bía' dan eraz, Jauna'ntza ba' daga xu—Josu-Kisto'k esan eban—donokija zeuria dozu.

Gokaxoen gomutaldija (Arimen eguna). Gau', atsoko eguberdiran asita, gaberdirate, edozein jauretze, jauretzaño, basotxoñotan, Porziunkula-eraz, nekazka osua gokaxo-aldez, irabazi legike.

9' gn. Ama-Neskutzaren Zaindasuna.

10'gn. Deun-Ander Abelin, autoflia, uste bage-erijotzaz il ez gadixantzat zaintzalia.

* * *

Gustijok il bía' gara; erijotza, eskontza lez, donokitik jasten dala, safi diñogu. Gexorik luzaro egonda, ildia, txiruentzat batez-be, etxe-ontzalia da, safitan, bestelan elduko ez litzaketzan asko-askorentzat euraen burubak donokiratzeko bide baka'ra da baña.

Uste bagako erijotza, ostera, ifunen artian ifunena da, beraz gustijok bildu' gayakoz, Doi-

batza'k be Afenketa nagusijetan Jaunari otoi egiten dautsola: *A subitanea et improvisa morte, libera nos Dómine.*

Deunak, Jaunak gura ixanda, batzuk baterako ta bestiak besterako berarizko indafa dabe donokijan. Deun - Ander Abelin uste bage-erijotzaz gixonak gaizkatzeko berarizko aldintsuba da, bera sormiñez, — apoplegia — il zalako-edo.

Sofmin-erijotzaz il ez gadixantzat ba, ila aunen ama'gañenan, Doibatza'k ospatzen daun Deun-Ander Abelin'agana ustakidatsu oneraspen egizko bidez eldu gadixan.

Sormiñez uste bagerik, il ez gadixantzat eska'ra eskatzeko Deun-Ander Abelin'ari otoyak:

I

Sofmin-aufka Jaunak Zaintza'le ixendau zauzan Deun aintzatsuba, safi dakusgun eta galtzoritsu dan gexo oritaz gaizkatu gagixuzala, apal eskatzen dautzugu. *Gure A'ña Goikua, Agur' Miren, Aintza.*

ÿ. Sormiñez gexoturiko Deun Ander Abelin-bi'artez.

ñ. Uste-bage-erijotzaz gaizkatu gagixuz.


II

Jaunaren erabaki artezez, sormiñez gexotuta il-bi'af ba'gara, Deun aintzatsuba, Iku'rtan Deunak artzeko astija ixan dagigula, ta Jaingo-eska'frez apainduta, ludifik alde dagigula, bijotzez eskatzen dautzugu. *Gure A'ña Goikua, Agur' Miren, Aintza ta enparaba len lez.*

III

Gogua soñetik alde-egin bía' yatzun aldi estuban, Miren Deunak eta Mikel Gongotzonak gaizkatu zinduzan, gaizkin aufka auska gogo'ra erabiñi zeban Deun Aintzatsuboi, erijotzaldi la'fritsuban lagun zakiguzala afen eskatzen dautzugu. *Gure A'ña Goikua, Agur' Miren eta enparaba len lez.*

Jokin.



Arima gaxoakanago eraspenna ta errukija gixa - batzan biztu gura badozuz, emon, bata bestiari ta zabaldu eikezu

: **Garbitoki'ko Arimaen Illa** :
deritxon idaztiño ederra. 25 ijeki
bialduko yatzuz 25 errialgaitik.

ñez barau egiten daunak, ostantzian egiten daunak baño irabazi geyago dauko. Eskañez Jainkoa'ri geure buruak opaltzen dautseguzalako, lanak gartsuago, ardura-tsuago ta Jainko-zaletasun biziagoz dautseguzalako.

—¿Zeintzuk dira Jainkoa'ri atsegiñen yakozan eskañak?

—Jainkoa'ri atsegiñen yakozan eskañak lekaidetzan (erlijijñoan) egiten diran irurak dira: garbitasunekoa, landertasunekoa (pobreza) ta mendetasunekoa (obedientzia). Iru eskain onen bidez gizonak daukan gustia Jainkoa'ri eskaintzen dautso: landertasunez, ateko ogasunak: garbitasunez, gorputzekoak; mendetasunez, bere buruaren jabetasuna: Eskain onen bidez, gizonak bere gauzak ez eze, ñere burua be Jainkoa'ri eskaintzen dautso. Ta igalia (frutua) baño, igalia dakarren zugatza eskaintzen daunak, geyago eskaintzen dau. Iru eskain onekaz, obenaren (pekatu) iru iturriak itxiten dira: landertasunaz zikoizkeria (diru-zaletasuna): garbitasunaz aragikeria (atsegin-ustel-garra): mendetasunaz arrokeria.

Gurutz.



X Pi Doipuruaren

Motu propio

Ereserti deunatzaz

VI

TXAUNESGIÑA

TA ERESGIÑAK (INSTRUMENTUAK)

15 Doibatzaen eresertia utsero aboskazkua ixanarren, au ta gusti be, eresertia laketzen da baita txauñesgiñaen lagun-

tasunakin. Iñozik-noizko banakaren baten biar diran neurri ta begiratasunakaz, beste eresgiñak be txadonan laketuak ixan leikez; ñaña orretarako beti biar da, *Ceremoniale-Episcoporum* aen aginbidez, Gotzañaren lakemen berarizkua.

16. Abestia beti gorago ibilli biar dan lez, txauñesgiñak eta ostiango eresgiñak betxutik irozoko dabe, bera ito bagarik.

17. Aspen-aurre luziak abestiari ipintea edo bitarteuneko eres-zatiakaz gelditu eraitia, eztago laketuta.

18. Abestiaren lagunkundean, aspen-aurrekuetan, erdi-artetan eta gañerako zail antzekuetan, txauñesgiña jo-biar da bere ixamenari yaokan lez, eta aurre-rago gomutautako ereserti deunaen zeindasunak eskatzen daben legez.

19. Txadonan *pianoa* jotia galazota dago, tuntuna, *chinesco*, aspilñuak eta orren antzeko eresgin zaratatsu guztiak bardin gebenduta dagozan lez.

20. Ereskari - taldiak txadonetan jotia gogor-gogor galazota dago. Ta bakarrik noxian bein Gotzañaren ñaikundia ezauturik, ereseipenai ta abestiari laguntzeko aboaz joteko eresgin zenbaki laburra ta ondo autestua laketua da, berak jotan daben eresertia ba-da txauñesgiñaentzat idazten dan antz-antzeko astuna, bena ta egokia.

21 Txadonatik urteten dan lerribil-kunde edo *prozesiño* deunatarra ereskari-taldia eltzia, Gotzañak laketu leike, berak eresau ezik jolaski ereseipenak. Guztiz gogokua ixango litzake orrelako aldi-etan esandako eresertiak, bakarrian mugatuko ba-litzakez, latelian edo erri-elian idatzitako *ereserti* deunai laguntzen, abes-turik eurok lerribilkundera eltzen diran abeslari ta anaide-batz (kofradia) uzkur-tzaleak.

UZKURTZ - ERESERTIAREN

LUZKUNA (EXTENSIÑUA)

22. Jaupariari ondian itxaon eraitea, Jaugurkerekak eskatzen daben baño asti geyagoan, abestia edo eresertia dala-ta, galazota dago. Doibatzaen aginbidez, Jaupaen *Sanctus* abestia jasokundia egin baño len amaitu biar da, eresertiak euki eztaientzat jaupa-esalia dingilizka lez geldituta. Gergorar irakatsi zarra araberan, *Gloria* ta *Credo* erdi laburrak ixan biar diraz.

23. Orokarrez, bigarren tokian eta eresertiaren otsein Jaugurkerea gelditzea uzkurtz inarkunetan, oikeri astunena lez dongetsi biar da, eresertia eztalako txadonan besterik Jaugurkerearen mirabe be - beko bat baño.

(*Daraike*)



AZARUAREN 1-N

Deun guztien jaya

Beda deun agurgarfi
Jaupariaren txonitza.

Gaur, maite-maitiak, bat - batera ospe alayaz *deun guztien jaya* oroitzen degu; beren bazkunak donokia poztutzen du; beren bitartekotasunak ludia alaitzen du; beren garaipenak Eliza Deuna dizdi-era-

GOKAXOEN EGUNA

Gure Elexa Ama deunak deun guztien jai ondoren Garbitoki'ko gogoen alde berariz otoi egiteko Azillako bigarren eguna aukeratu eban. Bere semeakaz Ama'rik onena lez ezta inoz be aiztuten. Bere biotz samurra poztasunik andiena, zeruan dituzan semien zorun amaibakoa dala-ta, agertu ondoren, Garbitokian diran gogo errukarriakaz gogoratzen da, euraen alde otoi sutsuak egiteko.

Jesu-Kisto'k irakatsi eban, orbandunik etzala inor zeruan sartuko. Ta ziñeskin-tzako egia da Jauna'ren aizkidetasunean oben ariñakaz, edo azketsitako oben astunaren zorra ordaindu barik iltzen diranen gogoak, zerura sartu baño len gustiz garbitu bear dirala. Onetarako da Garbitokia.

Bein ara joan ezker eura euren alde ezer ezin irabazi leikie, baña guk ludi on-tan bizi garienok eurai laguntzeko bide asko daukaguz: Lenengo Jaupa Meza deuna eskiñita: bigarren, euren alde otoi egin da: irugarren, Jainko-Zuzena'ri zorrak ordaintzeko egiten ditugun egiñen neketsuak eurai eskiñita. Esaterako, barau, ukar, laztasun, eta abar. Au kistar gustiok egin geinkena da. Onez gañera Doipuruak, Eleiza'ko Buru danez, nekazka edo parkamenak emoten ditu, gogo gaxoentzat irabazi geinkezanak. Eleiza'ren ondasunetatik Kisto ta deunen irabaziak berak emon leikezalako. Nekazkak irabazi ta egiñen onak eurai eskiñita errukizko lan ona egingo dogu. Ba *gose danari jaten emonda* ta *egarri danari edaten emonda* lez, gogo gaxo onei be, Jainkoa'gaz batuteko dauken gose-egarria asetzen dautsegulako. *Gexoak atsegintzen doguz*, Garbitokiko gogoak neke andien artean da-

gozalako. *Espetxeratuak azkatzen doguz* geure ukar eta parkamenakaz gogo gaxoak Garbitokiko espetxetik ataraten doguzalako. *Billoztuak janzten doguz*, Jauna'gandik zeruan sartzeko biar daben jantzi zuri orbanbakoa lortuten dautsegulako. *Bideztiari ostatua emoten dautsegu*, Jesu-Kisto'n irabazi-arren Jaunari zeruko jauregi ederra zabaltzeko eskatzen dautsegulako.

Errukitu gaitezana ba, Garbitokiko goakaz ta batez be geure guraso, senide ta aizkideakaz. Joan norbere errian euren alde egiten diran eleizkizunetara, eskiñi euren alde Jaupa ta egiñen on gustiak, ta ezin dabenak irakurri ta otoi egin zerbait il onetako egun gustietan, Jauna'k errukituta betiko argitara al bait lasterren eroan daizan.

Gama.

GOKAXUEN ALDEZ

AĀRENA

Gokaxuen oben - zořak
Afen Jauna azkėtzezuz,
Odol deunaren biřartez
Len - bai len gaizkatuxuz.

Baiřa zeuk, Karmel'dař Miren,
Ama eřukiořa,
Kutun deunagaz eroan
Egixuz donokira.

Requiem æternam

(EUZKERAZ)

Betirauneko atsedena
emoyezu Jauna:
eta betiko ařgijak
ařgiřu bekiye.

Goyan begoz.—Olantxe.

(Irureun eguneko nekazka).

MAZELAGAN'DAR AYA.



VI' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1917'g. Azilla 15.ⁿ

86'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

EIJO GARAI' TAR LEOPOLDO,

JESU-KISTO'REN ALATZAK (MIRARIAK)

Gazteiz Goterki'ko Gotzain jaunak

Bakaltsein baten semia osatzen dau

: bere deun - eguna gaur dau. :

(Joan, IV. 46 - 54)

Au dala - ta JAUNGOIKO-ZALE'k

barriri biotzetiko menpetasuna

Jesus'ek osatu eban gexo au beragan-dik urrin egoala. Jesus ba, Galilea'ko Kana'n egoan eta gexoa Kapharnaum, eta batetik bestera berrogei kilometro inguru dagoz. Ara orain alatzau Jon deunak e-destuten daben lez.

agertzen dautso Jaungoikuaren ize-

nian bere buru ta nagosija dan

Gotzain maitiari; ta beronen agin-

duak egiteko, lanari geruago ta

:: gogotsuago ekinko dautso. ::

«Eta Jesus barriri biurtu zan Galilea'ko Kana'ra: ura ardo biurtu eban tokira. Kapharnaum'en egoan bakaltsein (errege-otzein) bat semia gexorik eukana. Jaun onek Jesus judea'tik Galilea'ra etorrela entzun ebanian, bidera urten eutson eta arren Kana'tik Kapharnaum'era jasteko eskatzen euson, il-aginian egoan bere semia osatzeko. Baña Jesus'ek erantzun eutson: *Zuok eztozue sinisten alatz edo gelgarriak (mirariak) ikusi ezik. Bakaltsein edo erregetxuak esan eutson: Jauna, zatoz neure semia il baño len. Jesus'ek*

esan eutson: *Zoaz zeure semia bizi da, osatu da-ta*. Jesus'ek esan eutson itza siñistu ta etxerako bidia artu eban. Eta etxeruntz joyala otseñak urten eutsen bidera bere semia ondo egoala esateko. Galdetu eutsen ia ze ordutan osatu zan, eta erantzun eutsoen: *Atzo saspiretan itxi eutson beroenak*. Gogaldu eban aitak ordu atan bertan Jesus'ek esan eutsola: Zure semia ondo dago: eta siñistu eben berak eta bere sendi gustiak. Auxe da Jesus'ek judea'tik Galilea'ra biurtuta egin eban bigarren alatz.

Irakurle biotzekoa: gertaera onek bizi-tza onetako gexo ta naigabeak geuretzat gustiz onurakorrak dirala agertzen dausku. Naigabeak Jainko'agan oldoztu ta Beraganantz bultz-eragiten dausku. Ludiko (munduko) zorion artean erraz aitzuten gara geure Jainko'agaz. Baña atsekabeak gure biotzak apaldu ta bigunduten dituz, siñizte bizi ta uste osoa gure barruan sortzen dabe, bakaltsein onen gogoan sortu eban letxe.

Guazen ba, estu-aldietan Jaun errukitsu onegana, eta bere eskutik arturiko eskarrai biotz onez erantzun dayogun.

MANTEROLA



Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 18'gn; 25,gn: Deun-Katariñe, neskutza, ziñoepa.

Igande gustijetan kista' orok jaupa osua entzun-bia' dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK

21'gn. Ama-Neskutza-Aufkezkundia.

22'gn. Deun-Koikile ereslari Zaintzalia, neskutza, ziñoepa,

24'gn. Gurutzaren Jon, karmeldaña, autoflia.

26'gn. Miren eta Joseba Deunen Eztegu-bak.

30'gn. Deun-Ander, Belduba.

Gabon'ez amaitzeko berama'—40—Agu' Mirenezko eraskuna gauf azten da.

* * *

Ama-Neskutz-Aufkezkundia esanaz, iru urtedun zala Miren Deuna, Jesu-Kisto'ren Ama, Hyerosolym'en Jauretze albu'an zan ikastolara, neskatila bati jaoko'zanak ikasteko eldu zala, atzaltzen dogu.

Miren - Deuna, gustijok dakigunez, efuge so'rtu ta so'rkundetik adikuntzadun zan, bere buruba galtzerik ez legiken, Goteunak eskafez, obenik txikafenik be ez egife'ko bestian, sendotu ebalako. Alan da gustiz-be, ludiko galtzorijetzaz alde eginda, ixil-toki bakaf-tokira, gaste-gastarian eltzen da, an bere Mafe Jainguaz solasak, erausijak erabilijaz, bere gogo deun-deuna deunagotzeko.

Garan baño deunago ixateko biarfunez ardurapetuta gagoz, astija ta aldija goiko-Jaunak autarako baño ez dauskulako emoten, deundasunez mugagia dan Afa Betikofa eredutzat jaf'ten dauskubela.

Eskie'f deunak ixan-gura ba'gara baña, gure burubak deuntzen gastarotik asi bia'f dogu, gastarian deuna dana, gero be, berez-lez, deuna ixan oi dalako.

Goizpar'kijan diraku'f'gu: *Umiari neuganatzen itxi, donoki-bakalderija eurena da ta* (Marcos 10-14). Gastarian osoz Josu'rena dana, Josu biotzez idorota gero be beragandik urindu-bagerik Josu'rena ixango dala, itz onekaz adirazten dauskula.

Gastiak batez-be, Josu-tzaz urindu, ta deungatzen ba'dira, galtzori-zale egiten diralako da. Ta zoritza'rez galtzorijak ugarijagotubaz duaz.

Onerako baño ixan bia'f ez leuken igeles-mintz, —*cine*— jai a'fatsaldetako jolasketa, ta abaf, Josu'ren esana, beti lez, beteta, ilunpeko semiak argi aldekuak baño zufago diralako, gixonak, eta batez-be, gastiak, deungatzeko baño ez dira, ama'f agintzeak bete gura dauzanik eurretara eldu ez legikela.

¡Bia'f dan eraz, al dabenak, ontzat euren burubak etsifen dabezanak, alka'f a'f'tuta, jayak jai garbi egiten aleginduko ba'litzaz, ludijaren eogkeria beste bat litzake!

Jokin.

X Pi Doipuruaren

Motu propio

Ereserti deunatzaz

(Amaya)

LENENDIKO BIDEAK (MEDIOS)

24. Araututa emen gelditzen dan gustien egizpen adiyonerako, Gotzaniak autu beyez, autu ezpa-dabez, ereserti deun gauzetan jakintsubak egiz diran notiñakaz eraldutako, Batzar-Orde berarizkuak; eta onei, onduen dan erara, txadonetan eresautzen diran eresertiai zelata-eiteko arduria le-paltzen yake. Arduria-artu beye ba eurok, ez bakarrik eresertia berenez ona dan, baita abeslarien zeindasunai ondo dator-kion ta bere eresapena be ona dan.

25. Gergorar abesti goyetsia Tridentinar aginbenen erara, jaupalgai ikastole-tan eta lekaretxietan maitasun eta erraz-tasunaz lanau biar da, ta gai aunetan Buru-Nausiak ixan beyez oparo gantz eta itz-goragarriak euren gaste menbekuaren-tzat. Orobat, jauparien laguntasunaz, al dan tokietan, irasi beite Abesle-irakastola edo *Schola Cantorum* bat, bertan ikas-teko biar dan bestian Jaugurkera ereserti deunaren zigaztasun gustiak.

26. Jaungizti deunaren ikaslariei azal-tzen yakozanian Jaugurkera-Oitegia (*Liturgia-moral*) ta Doibatz Lagiztiaen (*De-recho Canónigo*)-en beti-betiko ikasgay-ak, ez beitez itxi ereserti deunaren arau ta askun lenen-lenenak ikutu baga, ezau-pen ain bierreko orrenen baraurik jaupari barriak ikastolatatik urten eztadizan.

27. Beñipein txadon nausietan *Schola Cantorum* berjarten, toki askotan atera-pen bikañagaz egin ixan dan lez, axola

ipiñi beite. Jaupari benetan ardura bixi-dunari ez-yako ixango ain gatx irastea orrelako ikastoleak (*Schola*) basuriko txadon notin gitxidunetan be; ta ori jaristen ba-dau, anei bide ixango dauz umiak eta nausiak bere inguruan batzau-tzeko, beste gauza batzuekaz baño be-rentzat eta uriarentzat onura bañuagua eiten dabela.

28. Ereserti deunaen ikastola nausiak lendik dagozan tokian, ardura-artu beite obetuen dan eduz eurak irozoteko, ta laguntasuna egin, oraindik eztagozan toki-etan irasteko, zegaitik axola edo garran-tzi aundikua dan Doibatz beraxek bere irakaslai, txau nesgindariei ta abeslariei irakaspena emotia, erti deunaren askun egizkuak diñuen lez.

IX

AMAYA

29. Guenez, txau neslari-batzei (*capilla*) irakaslariei, abeslariei, jaupariei, ikastola, lekaretxe ta uzkurtz-etxien nausiai, txau-buru ta artezliei, jaupaltxaun (*colegiata*) eta gotertxaun jaupaldiei (*cabildos*) ta guztiez gañera Gotzani arren eiten yakue, alegin osuagaz babeztu dayezala gustiok gogo batez aspaldion eskatutako erabijakun zar aunek; Doibatzaren almen beraxe ezetsian jausi eztadintzat, len sarriri esan dabena, orain beste bein ge-yago berresaten dau alegin gustiagaz.

1903'g. Azillako 22'n, eta Geure Doipu-rutasunaren lenenguan, deun Koikille neskuts eta ziño-paen jayan.

Batikano'ko Geure Beldukide Jauregian emona.

PI, X'en DOIPURUA.

Euzkeratzallia,
K. I.

Euzkeldunei Euzkeraz

Jesu-Kisto'ren irakaskizun zerutarrak, euzkeldunen artian zabaltzeko arazoa geure gain daukagun jauparijok (abade) bear dan onuraz betetako, JAUNGOIKO-ZALE Bazkuna sortu gendun. Geure ikurritza (lema) idazkun onen buruan ipiñi doguna da. *Erdeldunai erderaz* lez EUZKELDUNAI EUZKERAZ irakastia, bide - bidezko ta bear-bearrekoa da. Au aspaldi Goterki (diocesis) onetan aginduta egoan; gañera bi ta bi lau dirala lez, argi-argi dagon gauzea da. Baña gauza argia izatia ezta naiko, ziyo edo errazoi bat dala edo beste bat dala, begiak itxi edo argiagandik iges egiten dabenentzat. Alan da be, ekin eta ekin, askori begiak zabaldu eragin dautseguz, ta aurrerantzian be, iñoiz aspertu barik ekiteko, ta geroago ta sutuago ekiteko, asmua daukagu; gustiai edo geyenai beintzat, begiak idegi eragin arte.

Baña, ¿zer dala-ta ainbeste ekite? ¿gogaikarri ez-ete gara egingo? Bide zuzenetik doyanak *oportune* ta *importune* ekin bear dautso, Paul deunak esan eban lez. Ta gure bidea zuzen-zuzena ez-ete da?

Bazkun au sortu zanian, Kadena ta Eleta jauna zan gure Gotzain. Berak gure sail oneri ekitia «gustiz onurakor ta bear-bearrekoa zala» esan euskun. Bere ondoren etorri zan Melo jaunak aurrera jarraitzeko adoretu ta txindiz be lagundu euskun. Barriz orain geure Gotzain maite dan Eijo ta Garai jaunak, geure asmuak ederrak eta goitarrak zirala agertu ondoren, geure aldez alegin gustia egingo dabela esan euskun, aurrera jarraitzeko onu eder aitakorrek emon eta esku zabalaz irarkolarako txindia be emon euskun.

¿Geure bide au ba, zuzen-zuzena: ¿ez-ete da? Geure nagosiak onesten daben

bide onen zuzentasunatzaz ¿ez-bairik euki ete lei iñok? — Au naiko litzake geure biotzak sendatu ta eragozpen gustiak aspiratuta aurrera jarraitzeko; alan da be, neure irakurliak atsegiñez irakurriko dabezala-ta, igazko Otsailla'n il zan Gotzain Jaungoiko - zale ta jakintsu baten gai onetzazko irakaskizun eder mamintsuak ementxe ipintia otu yat. Torras eta Bagés Vich'ko Gotzain ospetsua izan zana da, jakintsuen artian jakintsua. Bere idaztiak erbeste laterrietan be zabal dabiltz.

Gaur kistar-ikastiatzaz diñoa ipiñiko dogu, otoyatzaz ta eleiz-itzaldiatzaz diñoa urrengo zenbakietarako itxita.

KISTAR - IKASTIA BAKOTXARI BERE ELEZ IRAKATSI BIAR YAKO

«Gai-onetzaz — diño — goitik eta argi itz-egin biar da. Umiai Jainkua erazagutu, au da, kistar-ikastia erderaz irakastia, oitura iguingarri, kalte - kaltetsu ta zifñiste ondatzallia da». — *Traditio Catala, Cap. V. - 46.*

Ta beste toki baten: «Kistar - ikastia norberea eztan elez irakastia, naita elerti (literatura) ugariduna izan ele au, Jainkua'ren Semia'k mundu edo ludi onetara ekarri eban irakaskizun deun oni, gure izateagaz euki biar daben maitasuna, beragaz batzeko erraztasuna, gure izateagazko batasuna, ta giza - gogoatzazko bardintasuna kentzen dautso: ta au dala-ta bere indarrrik geyena galtzen dau. Ta auxegaitik Eleiz Katoliko'tarren gogo ta guraria da, kistar-ikastia bakotxari oi daben bere elez irakastia». — *Pastorales tom. I. - 348'garren ing.*

Eta Kataluña'n katalaneraz irakatsi biar dala aldezteko diño: «Kistar-ikastia erderaz irakastia nire goterkiko (diocesis) errientzat, ezikuntza edo edukaziño bidia

elitzake izango, azal-azaleko irakaskintza bihurtuko litzake, edesti (historia) ta geografiagaz jazoten dan lez: ta eurak lez umien gogoan lorratzik eleuke itxiko, ikasi biar daben umiok gaztearotik bizi-bidia irabasteko esku lanari ekin biar-ko dautsenian. Bestetara, Kistar - ikastia umiak euren jayotzezko elez, naikun zintzoen elez ikasten dabenian, euren gogotan josita lez geratzen da, euren gogozko izateagaz bat-bat eginda, eta jakituri egikor onen erabagiak argi bizia egiten dabe bere kontzientzian, andi eginda girna txarrak bere barruan jasoten dituan ekatx-aldietan». — *Ib.* 348 — «Ta olantxe da kistar-ikastia erderaz irakasten asi diran ezkerro *jenteak* eztaki edo gustiz txarto daki: ta onexegaitik, gure erri au argiztu daben gizon benetan Jainko zale gustiak, kistar-ikastia katalaneraz (emen euzkeraz) irakatsi biar dala gogorki aldeztu dabe». — *Trad. Cat.* - 46.

Au onan dala, zuzen ete-dabiltz euzkel-dunei erderaz irakasten dautsienak? Erlekiño gauzetan moda edo barrizalekeria bastertu biar da. Gotzain jakintsu onek diñoskun lez: ba, «Jaun-zaletasun sendo-ena dabenak asaben erara Uzkuurtza (erlikiñoa) euki ta zaintzen dabenak dira: barrizalekeria Uskurtz gauzetan baño ezertan ezta kaltegarriagoa. — *Trad. Cat.* V. - 44. — Ta modarik kaltegarriena euzkeldunei erderaz irakastia da. Alan uste dot neuk beintzat.

M. far G.

ERANTZUN POLITA

Lakordaire aba domekatarra lengo gizaldiko itzlari ospetsuenetarikoa zan. Bari-ku baten, oi eban lez arrautzopil bat bakkarik artu eban bazkaltzeko. Bere alboan

-egoan barikuan ardura barik, aragiz urdalla bete eban *progresiste* edo alango abere antzeko bat. Bete-bete zanean lekaideari (pralle) esan eutson:

—Zuen Erlejiño ori, ezin buruan sartu dot: ainbeste laztazun, eta ainbeste ziñezkai (misterio) ezin dodaz ulertu.

Orduan Lakordaire abak erantzun eutson:

—Begien aurrean daukazun arrautzopil au koipe ta arrautzagaz eginda dago. Eskarrez esango dauztazu, ba, ia suak gauza bat izanda, zergaitik koipea bigundu ta arrautzea gogortzen daben?.

Sasi-yakituna lotsatuta zer erantzun ezeziela geratu zan, eta lekaideak esan eutson:

—Zeure adimen laburrak arrautzopil (tortillau) zelan egin dan ulertu ezin-eta, Uskurtz (erlejiño) egi zakon-zakonak ulertu gura dozuz?

Ta gero onen antzeko-kirten-tzarrak, bene-benetan esango dautzue, eurak ulertzen dabena baño ez dabela ziñizten. !Barre eragiteko be baten-bat beok eta!..

GAMA.

EUZKEL-GAIZ

Euzkel idazle batzuek bai dabe oartxu onen biaña. Askok ez dakije aditzari (verboari) noz ezari *tso*, *tse*, ta abar.

Ara emen argi, erderaz be bai, alabaña bein eta betiko.

Atzalkixuntzat izango da IKUSI, *ver.*

Onazkero jakingo edo-dabe *tso*, *tse* ta abar *regimenes indirectos* dirala eta «IKUSIN» da *regimen directo*.

ikusfen (consuetudinario)	dautso	<i>se (a él) lo ve él.</i>
	dautsoz	<i>se (») los ve él.</i>
	dautsoe	<i>se (») lo ven ellos.</i>
	dautsoez	<i>se (») los ven ellos.</i>
	dautse	<i>se (a ellos) lo ve él.</i>
	dautsez	<i>se (») los ve él.</i>
	dautsee = ie	<i>se (») lo ven ellos.</i>
dautseez = iez	<i>se (») los ven ellos.</i>	

U. far P.

¿GENTZA BILLA?

Guda aldiyan
gentza - zoruna
baño oberik
ete dago?

Ez: ba gustiak
auxe nai dabe
alkarren leyan
sutsuago.

Gentza berberau
kistar gustiok
gogoz nai dogu
ludi ontan.

Baña etsayez
inguratuak
¿zelan lortuku
au benetan?


Burrukan bada
gogor - gogorki
jardun biogu
emen beti,
gero Jauna'ren
zorion - gentza
jaritxi daigun
donokitik.

Baña alan be
bai-da bide bat,
gogoko gentza
lortuteko:
Berau da barriz
gertututia
Jauna'ren naya
egiteko.

Jaun-maitasunez
sutu biotza
geidia zeu lez
be, maitatu;
zure biotzen
barrengo gentza
daiten ugari -
ugaritu.

Gentza Goikoaz
eta geidiaz,
zeugaz be gentza
ba'daukazu,
bizitza onen
ondorenian
betiko gentza
lortuko zu.

GABIREL.





VI' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1917'g. Lotazilla 1.^o

87'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

Elgaro'ko (abendua) lenengo igandia

GOIZPARKIA (EBANJELIOA)

Elgaro'ko lenengo igandia Eleiz-egutegian, urteko lenengo eguna da. Egun onetan asten da Eleiz-Ama kistarren biotzak Jesu-Kisto'ren Jayotz-egunerako gertuten. Berbizkunde egun alaya biar dan lez ospatzeko, Berrogeikaro edo garizuman gertuten garian lez, Elgaro-aldijan gertuten doguz biotzak, Gabon-jayak geuretzat onoratsuak izan daitezanzat. Dirudienez, Eliza'ren askalditikua da oitura eder au. Lenago sei astekua izaten zan, XIII'garren gizaldirarte, toki batzuetan beintzat. Orain lau aste baño ez ditu.

Egun onetako Goizparkia, Luka deunak XXI'karren atzalburuan dakar: «Aldi atan: Jesus'ek bere irakaslai esan eutsen: Eta ezaugayak, eguzkian eta illargian eta izarretan izango dira: lurrian, barriz

itxaso ta bere uin (olatuen) orruak dirala-ta, gizartian izu-ikaria, gizonak igartu arteraño, etorkizunaren bildurrez: ludi gustian jazoko danagaz, ortzeko indarrak ba, zirkin egingo dabe. Eta orduan ikusiko dabe gizonaren Semia, al andiz ta andikiro odei baten gain datorrela. Jazokun onein asieran, begira: jaso zeuen biotzak, zeuen askakundia (erredenziñoa) ur dago-ta. Eta irudi auxe esan eutsen: Begira piku ta beste zugatz (arbola) gustiai be: alia, garaua, eurakandik emoten dabenian, udarua urbiltzen dala bai-da-kizue. Zuek be, gauza oneik gertatzen dirala ikusiko dozuenian, Jainko'aren ala (Erreñua) ur dagola jakin eikezue. Ziñez diñotsuet: eztala amaituko gizadi au, esan dodana bete arte. Zeru-lurrak aldatuko dira: nire itzat baña, ez dira aldatuko.»

Kistar maite: Gaurko goizparkiak diñosku, Jesus gure Erosle maitia, zerutik anditasunez beterik jatsiko dala, bakoitzi irabazi daben sari edo zigorra emoteko, Epaikari zuzen-zuzenari dagokion

lez. Nun izango dan, eztakigu: noiz izango dan, gitxiago. Baha bai ta eskier noz edo noz etorriko dala Epaikari zuzena, bakotxari irabazi daben zigorra erruki barik, edo irabazi daben saria esku zabalaz emongo dautsona. Batzuri betiko gextokia ta bestetzueri betiko zoriona. Eta eztau inork be atsipetuko (engañau). Bera jakitun-jakituna da: gusti-gustia dakiana, gure biotzeko gauzarik barrukoena be, argiro esagutzen dituana. Ta geure barruan aurkituko daben ontasun edo txarkeriaren neurritz saritu edo zigortauko gaituana. Bata edo bestia. Eta geurimongo daskun epaya, onerako ala txarrerako izango ete da? Geuk orain gura doguma izango da, geure eskuan daukagu, Jaun onaren laguntzagaz betiko zoritxarretik aldendu, ta betiko zoriona lortutia. Orain arte oben asko egin dogula? Jaso biotza Jesus onagana, bizitz-aldiau erruki aldia da-ta. Pekatuko lo-zorrozik jaiki ta Jainkua'z aizkidetu: ta gero, otoi ta ernai bizi aizkidetasunau galdu eziteko; ta epaikari onen etorrerea pozkarria izango yaku.

GABIREL.

Doibatz - Egutegija

Igandiak: 2'gn; 9'gn.

Jai osuak: 8'gn. Ama-Neskutza Sorkunde Erugia.

Igande ta jai gustijetan kistaf orok jaupa osua entzun eta otsein - lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK

3'gn. Deun-Pantzeska Jabier'tara, autorfia. Nipon eta Indijetako Belduba, euzkotaf euzkelduna, Napa'ra'ko Zaintzalia.

6'gn. Deun - Nikola, Gotzania, autorfia, itxaztar - Zaintzalia.

7'gn. Iaren lenengo barikuba
Iaren lenengo bederatzi bariku jaraubetan, bial dan eraz, Jaunaftza ba'dagi.xu - Josu-Kisto'k esan eban - donokija zeuria dozu.

10'gn. Loreto'ko Ama Neskutza. Loreto'ra Ama Neskutza'ren etxia gotzonak osorik aldatu eban gomutaldija.

12'gn. Guadalupe'ko Ama Neskutza.

13'gn. Deun-Luke, Neskutza, ziñopia, begi-min-aurka zaintzalia.

Jokin.

Orbanbako Sorpena

Orbanbako Sorpen-eguna geuretzat jai gomutagarria da, geure bijotzok egun onetan pozen - pozez taupada lasterak dagiz.

Egestija zabaltzen dogu ta bere ingoski baten dirakurgu: *aintziñako euzkeldunak Gefnika'ko Batzaetan Miren'en Sorpen garbija, orbankea aldeztutia zin-egiten ebela*, ta Iratxe'ko lekaretxian dagon idazkunak diño: «..... non multo post ejus (Sancti Veremundi) obitum, in eodem monasterio festiuitas Conceptionis Inmaculate celebrata est octavo die.

Nam non multo post mortem ejusdem Sancti constat ex antiquissima scriptura characteribus Golhicis exarata diem illum quotanis celebrari solitum in toto Navarra regno, ac sententiam juridicam in quadam lite hujus monasterii dilatam fuisse usque ad diem Decembris nonum ob reverentiam festi Conceptionis». Euzkeraz: «Beremunda Deuna ilda urte gitxi, lekaretxian zoftziga'en egunan Orbanbako Sorpen jaya ospatu zan.

Beremunda Deuna ilda urte gitxi, aintzin-aintziñeko idazkun izki Gotafez egiñak diño, Napa'ra'n urtero egun a ospa-

MIREN SORKUNA

I

Goiko Jaun Onak soñtu eban bein
Miren orþange garbirik
Ane Ama'ren eñai deunetan
Goi-eskafez apaindurik,
Aldijen baten soñtu egijan
Sabel deunian apalik
Jaun - Goiko - Seme Beferoslia
Goteunak oso ufgazturik.

II

Jaun - Goikua'ren Ama zaranetz
Goyan daukozun aintzia
Ez ta aragizko idazkoñtzakaz
Esateko egokia,
Ixan afen be neure egunetan
Jaingiztijen aizkidia
Eta Urtzi'ren lagi deunaren
Benazko jañaitzalia.

III

Uso zuritxu polit edefa
Araño ta sai aftian
Garbizko liliz apain-apanik
Ageñtu yakun Judian,
Zuzenduteko be-noñin oro
Donokirako bidian
Jaun Efukoña guñtzeko gogoz
Etzunik auspez lufian.

IV

Jaun-Goikua'ren Ama Bigunoi
Zakust Goiko baratzian,
Arpegi argi-gozo uts utsaz
Gotzon askoren erdian,
Lili zurijen usain gozua
Edatzen baratz gustian,
Oben zikinèn usteltasunik
Bein bere ez dalken tokian.

V

Zeure Sorkuna Miren on utsoi,
Gustiz ixan zan garbia,
Oben loyaren zikinðasanak
Inoiz be ikutu bagia,
Edonok daki lan au osoro
Dana Goi - egipidia
Eta Urtzi-al-gelgarñjaren
Ikurtza garbi-argia.

VI

Gixadi-oro eldu da bera
Oben-iguñaz jantzirik
Gogo-gaizkapen etsai santafen
Loki gogofez loturik.
Utsik Miren'ek urten dau azke
Ada'ren sengijetattk,
Jatofi-oben ustel zifalen
Usain iguingarifik.

— *Egiarte.*



Euzkeldunei Euzkeraz

II

Lengo zenbakian ikusi gendun, kistar-ikastia bakotxari bere elez ta beraz «euzkeldunei euzkeraz irakasten dautsienak zuzen dabilatzazala, ta beraz euzkeldunai erderaz irakasten dautsienak, lan iguingarri, kalte - kaltetsu ta sinizte ondatzallia egiten dabela» Torres ta Bages Gotzain jakintsuak irakasten dabenez.

Gaur Eleiz itzaldiatzaz irakasten dabena ipiñiko dogu.

Itzaldi-bidez Jesu-Kisto'n irakaskintzako azi zerutarra gizon guztien biotzetan ereitea Jesu - Kisto'k berberak bere ordeazkoen gain ipini eban araso astuna da: «Zoaze ta erri gustiai irakatsi egiyo-zue» (Matt. XXVIII, 19) Beldu edo apostoluai esan eutsenian. Itzaldia ba, siniztia zabalatzeko Jesu-Kisto'k berberak agindutako biderik lenena da. Beraz Uskurtzak (erlejiñoak) diraun artian iraun biar dau; munduaren askenerarte. «Entzun eztabenagan (ba): ¿zelan siniztuko dabe. Ta zelan entzungo dabe izlari barik? (Paul deunak Rom. X-14). Izlarien arazua go-rengoenetarikua ta biar-biarrekua da; siniztia zabaldu, ta nazte barik iraun dayen. Zeregin astun-astuna, ta beraz, ardura

andiz biar dan eraz bete biar dana onuratsua izango ba-da.

Era onuratsua izateko, entzulien elez egin biar dala, esan biarrik ete-da? Auxe egiten eban gure Jesus maitiak erririk erri zeruko irakaskintzak zabaltzeko itz-egiten ziarduanian. Berberau egiten eben bere ikaslariak mundu gustitik zabaldu ziranian, Jauna'ren agintza betetako. Baña ikaslariok Galileatarren elia baño ezekien: eta zelan ikasi mundu gustiko izkuntzak? Eta jakin ezik: zelan erri bakotxari bere elez itz-egin? Baña Jainkua'k bete ezin dan gauzarik eztau agintzen. Eta bere Belduai ele-emaizta (don de lenguas) arrigarria egin eutsen. Eurak ekien ele bakarrian itz-egiten eban, eta erri gustietako entzuliak bakotxak bere elez ulertzen eben Belduak irakasten eutsiena. Eta lenengoz itz-egiten asi ziranian Jerosolym'en Pasko jayak zirala-ta, erri gustietatik bildutako gizoztia joan zan entzutera, ta arritu ziran bakotxak bere elez entzuten ebala ikusirik: eta esaten eben: «Itzlari gusti oneik Galilea'tarak izanik, zelan bakotxak *geure* jayotzatiko izkuntzaz entzuten dogu?» (Act. Apost. li). Eta bertan Parthos, Media, Phrigia, Egito, Roma, Lybia ta Arabe'tarrak be, beste askon artian egozan. Ezeban ba, Trento'ko Batzarrak agindu barririk emon, erri bakotxian bertako elez eleiz-itzaldiak egiteko agindu ebanian. Irakurlien batek bere artian oingo esango eban: Entzuliai lo eragiteko a zelako sermolaria. ¡Ta gauza ez-jakin edo barriak esango ba'leuz, gaitz erdi! Azketsi: baña nik us-te dot egia urre antzekua dala, ta ez dala sartzen urtiak igaro arren: ta egi argia izan arren, zoritxarrez sarriagotan askori aitatu biar izaten yake, siniztu erazoteko erdi guzurra danian baño. Ta... pillosopokeriak itxita guazen arira.

ELEIZ - ITSALDIK ERRI BAKOTXIAN BERTAKO
ELEZ EGIN BIAR DIRA

Ara gai onetzaz Torras ta Bages. Gotzain argiak diñoskun zerbait:

«Klaret Gotzain gurgarri-Eliz-Ama'k aldi gitxi barru deuntzat iragarriko daun izlari ospetsu - ospetsuak—esaten eban, katalanerazko itzaldiakaz kistar bidegabetu asko bai asko, Jauna'gana biurtu, ta bide oneratu ebazala: erderazko itzaldiakaz, barriz, banaka batzuri bakarrik biotza aldatutia lortu ebala: ta au diño gure Gongotzain (artzobispo) Vilamitjana'k, amaren altzuan ikasitako izkuntza, biotzeko izkuntza, ta naikun (afecto) garbien izkuntza dalako gertatzen da. Araulegez egiten danak berezko gauzak ana indar eztauko, eta norberena eztan elez, izlari ta entzuliena be eztan elez itz egitia, egiz eragozpen andia da, siñizte ta Jaun - zaletasuna zabaltzeko» (Traditio Catalá-C. VI-49 ing.) «Eta ez ziñetsi erritarrak erderazko itzaldiak eskatzen ba-dautzuez be: eurak ba, jakituntzat daukiezanen ikasbide txarrari jarraituta egiten dabe: ta itz-egiten dabenian egia-aren maitasunak baño arrokeri-maitasunak geyago zirikatzen ditu. Atsegin emon gura dabena'k erderaz itz-egin dayela, baña onegin nai dabenak gere jayotzetiko elez egin dayela» (Ib.-51) Goko irakaskintzak ba, Kistarren izatiagaz albait ondoen alkartutia gura ba'dogu, bakotxari bere elez irakatsi biar dautsegu ta geure esanari indarrrik emoten ez-pa dautsie, ara Solsona'ko Gotzain Puigmari Abak idatzi ebana: «Jesu-kistok bere irakaslariak izkuntz-emaizta eukitia gura izan eban: izkuntzak goguagaz alkar-tziarren eta ez goguak izkuntzakaz: ora-in besterantza jazoten da: ta agaitik ain onura gitxi egiten da kistarren artian.»

Esan dogun gustian euzkeldun izlari

askontzat, ez-ete dago ikasgairik? Bayetz erantzun biarrik eztago, gustiok dakigu gertatzen dana-ta. Eztaigula egiz esan aurrerantzian, orain arte erri batzukaitik esan eikianik: «Umiak ogia eskatu eben eta ez egoan emongo eutsenik» (Jerem. Thr IV-4). Auxe da Erlejiñoaren on eta gogoen onurak eskatzen dabena.

M. 'far G.



Miren Neskutsari (1)

I

Abestarijak.

Miren neskutsa zeu soñkudia
Garbi, obenge zara alatzez;
Augaitik Jaunak bere Amatzat
Autetsi zindun atsegiñez.

Erijak.

Ama laztana zeure egapian
Garbi, obenge zaindu gazuz,
Alan be Euzkadi'n ekandu txafak, (1)
Afen, betiko galazoxuz.

II

Gotzonez zagoz ingurututa,
Amabi ixafez burestuta,
Iretarjija zeure oñetan
Ta eguzkijaz apainduta.

(1) Miren Alaben bazkidiak abestu dagijentzat *Goizeko Izaña*'ren erestijaz.

(2) Aldatu leike eñjen ixena jañirik era onetara. = Eñloño'n be = edo = baita Gerñika'n = alanbe Eñño'n = eta abaf...

— *Mazelagan' dañ Aya.*

ITAUN - ERANTZUNAK

Eskaña (botoa). — Jaungoikoa'ri eskaña neutson, semerik izaten ba'neban neure erriko Andera Maria'ren eleizara igon, semetxoa o-parri ganian ipiñi, ta mesa bat egin erazoko nebala. Jainkoa'k semia emon daust baña erritik urrin aurkitzen nazalako, Andera Maria'ren eleizara igotia sail egiten yat. ¿Zer egin biar dot?

— Mezia egin erazo zagozan errian. Erriratzeko bidia dozunian Andera Maria'ren eleizara igon, eta eskaña bete. Erriratu ezin ba'zara, edo sail egiten ba'yatzu, eskaña bete biarrik ez dozu. Egoki litzake orraitño zagozan errian Andera Maria'ren oparririk ba dago, bertantxe semetxoa Jainkoari eskaintzia.

Isparringi onetarako dirua. — Aizkide batek diru mordotxoa itxi eban bere azken nayan izparringi onetarako. Aldi atan ez zan JAUNGOIKO-ZALE argitaltzen. Diru onen jabe neu naz. JAUNGOIKO-ZALE Bazkunari kistar-ikasti zabalkunderako ¿emon ete nengio?

— Ezetariko ezparirik eta kezkarik bage. ¿Zer gurozu ba kistar-ikasti zabalkundia baño asmo bikañagorik?

Ekin

Gure Gotzain maitia oraintsu Bilbao'n ikertu genduanian, agindu bat emon euskun: Goterkiko Abade gustijak geure bazkunan batu daiguzala; «gustijok asmo orrekaz alkartuta balegoz, gauza andijak egingo geunkez», esan euskun.

Guk agindu au betetiarren gaur barriro dei-egiten dautsegu Abade gusti-gustijei gure bazkunan sartzeko. Aonetarako ondiño bazkide eztiranai be zenbaki au bialduko deutsegu, ta beronen barruan orritxo bat utsunak bete ta ixenbetuta atzera bialdu daiskuen.

Gotzañaren gurarijak osoro beteta ikusiko al doguz.



VI' urtia
Amabosterokua

Zornotza 1917'g. Lotazilla 15.^o

88'g zenbakija
Arpidea laurleko bi

Elgaro'ko (abendua) irugarren igandia

GOIZPARKIA.

(JOAN. I. 19-28).

Aldi atan: Judatarrak Jerosolym'etik bialdu ebezan jaupari ta jaupaltseñak (levita) Jon'i itanduteko: Nor zara zu? Berak egia autortu eban eta ezeban ukatu: argiro autortu baño: Ni ez naz Kisto. -Nor zara ba? esan eutsoen: Elias zara zu? Esan eban: Ez naz. Iragarlia zara? Erantzun eban: Ez. Esan eutsoen ba: ¿Nor zara, bialdu gaituenari erantzuna eroan dayogun? Zeutzaz zer diñozu? Ni-esan eban-lekaruan (basamortuan) deadar egi-ten dabenaren abotza naz: Jauna'ren bidia arteztu egizue, Isaias iragarliak esan eban lez. Eta bialduok Parixetarrak ziran. Eta barriro itanduta esan eutsoen: Zu ez-pazara Kisto, ez Elias, ez Iragarlia: ¿zelan ugutzatzen dozu? Jon'ek erantzun eutsen esanaz: Nik uraz ugutzatzen dot: zeuen erdian dago baño zeuok ezagututen eztozuena. Bera da nire ondoren etorriko da-

na: ni baño lenago dana: eta ni bere oñe-tako ugala azkatzeko ez naz duiñ. Gusti-au gertatu zan Betanian, Jordan'en beste alderdian, Jon ugutzatzen egoan tokian.»

* * *

Kistar maite: Elexa Amak apaltasun bidez gertatu gura dituz kistarren biotzak Jesus'en jayotza ospatzeko. Arrokeriak urrinduten gaitu Jauna'gandik, beraz apaltasuna biar-biarrekua da geure biotza Jesus'enagaz bat egiteko. Ta apaltasun onen eredu ederra Jon deuna ipinten dauku. Kisto zara zu? itandu eutsoenian, aukera ederra eukan Mesias burua eginda, Igarle andi bat lez agertzeko. Baña etzala esan eban argi ta garbi, apala zalako; ta Tere-se Deunak diñon lez apaltasuna egia baño ezta. Ta zeutzaz zer diñozu ba? itandu eutsoenian, Neure neurez ezebe ez naz; egi-egia autortu eban eta ezeban ukatu, geuri be egizaliak izaten irakasteko, egi-zaletasuna apaltasunaren lagunik onena da-ta.

Parixetarrak apalak etzirialako egiza-

liak be etziran, eta egizaliak etziralako arrokeriak itsututa euren artian ebillen Jesus maitia ezeben ezautzen ¡Zenbat ete dira kistar artian be, euren buruak jakintsu eginda, Jesu-Kisto ta bere ekandun eta irakatsi deunak emakume ta umiak ikasi biar dituen gauzatzat artu ta, parixetarrak lez, euren erdian dabillen Jesus ezagutzen eztabenak!

Jesus ba geure artian bizi da, bere irakaskintza bidez, baña batez be, oteundegian (sagrario) bizi-bizirik geure gogojanaritzat eskintzen dala dago, eta kistar asko dira parixetarren antzera aintzat artzen eztabenak. Siñiste bakuak baño askoz errukarriaguak dira, euren artian ondasun gustien iturburua eukita ezagutzen eztabelako.

Gugaz onangorik jazo eztaiten, gertau daiguzan biotzak geure ezereztasuna autortuta, Jesus Jaunartza-bidez Gabon jayetán geure barruan artzeko, ta eztau gugaz zer-ikusirik eukiko Jon deunak judatarrakaitik esan ebanak: «Zeuen artian dago zeuok ezagutzen eztozuena» ala «bere etxera etorri zan eta beriak ezeben artu».

GABIREL.

22'gn. Aratuzte — aragija izteko — ta barau eguna.

Len be esanda dogun lez, guk emen ixendatzen doguzan aratuzte ta barau egunak, Buldadun diranentzat be bardin dira. Buldadun ez diranak guk emen ixendatzen doguzan baño aratuzte ta barau egun geyago zaindu - bial da-be. Bulda barija ila onen lenengokotan iragari eben; iragari ta ilabete buru artu - bial dogu, ila betian lengua yaku aldintsu, lenengokotik barija aftzia baña, oba da.

26'gn. Deun — Estepan jaupatseña; lenengo ziñopea, jai osotzat zaintzen doguna.

27'gn. Deun — Jon Belduba ta Goizparkilia, jai erditzat zaintzen doguna.

28'gn. Sein Eñugiak, jai erditzat zaintzen doguna.

31'gn. Deun — Silbester, Doipuruba ta autoflia, jai erditzat zaintzen doguna.

Gabon-zaf eguna, ainbatek, zoritxafez, zoreri deungaz igaroten daun eguna, gogodun ezpa - litzaz lez, kortako abere - antzera soin utzaz baño gomutetan ez dirala.

Igaz be ezan geban, gabon-zafez, apal - ostian, senide ta auzuak alkafezana batu, ingi - atal -txubetan deunen ixenak idatzi, ontzi baten saftu, zoriz, norentzako ixendauta, bakotxan bat atara, ta urten dan deuna, urtebitarterako norberaren zaintzale berarizkotzat autu, bere goreskafiz egunoro, batez be bere egunan, zerbait inarduta, urtiaren azkenengo eguna igaroteko ofura onuragin - onuragiña yatzu. ¿Ete dagikezu?

Jokin.

Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 16'gn; 23'gn; 30.gn.

JAI OSUAK: 25'g. Josu-Kisto'ren Jayotza.

Igande ta jai gustijetan kistar orok jaupa osua entzun biar dogu, eta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK

18'gn. Itxopen'dun Miren Deuna.

19'gn. Jauparikaldija.

21'gn. Deun — Toma, Belduba, jai erditzat zaintzen doguna; aratuzte — aragija izteko — eguna, barau eguna ez.

Kistar - Tkasti atzalbena

Jainko-Legeko irugarren agindua

II

JAYEGUNAK DONETUTZOKO (SANTIPIKATZEKO) BIDIA

—Zer egin biar dogu jayegunak donetutzeko?

—Jayegunak donetutzeko lanari itxi, ta Jainko arazoetan inardun (okupau) biar gara.